


ASTIGARRAGA 2014

33. aldizkaria, 2014ko uztailaren 11



Egin dezagun lan
GURE LURRAREN
baloreen eta balioen alde!

AURKIBIDEA



Historia

* El Camino Real y la Casa de postas	4
* Nuestras campanas	8
* Ergobiako zentral termikoa	32



Biografiak

* Antxon Aguirre Sorondoren oroimenez	3
---------------------------------------	---



Herrikoiak

* Andoni Gartzia alkate gaztearekin	10
* Atez ate urtebete	34
* Joxe Goñi, Guruzetako sagardogilea	38
* Urumeako Kronika	40
* Fiestas en Arrobitxulo	47
* Urteko herri bizitzaz	48



Elkartek

* Ikastolaren 45. urteurrenaren festa	12
* Emarri, zortziko dozena	29
* Sagardoetxea, urrezko bikain ziurtagiria	30
* Bi arreba, bi artistari buruzko bertso-musika	36
* Patchword taldea	44
* Txirindulari taldea	37



Natura

* Lupulua	7
* Baserriaren balore eta balioak	14
* Non daude barazki eta fruta-arbolen barietateak?	16
* Permacultura	18
* Ikastola eta lurra bat eginik	20



Kultura

* Emakumea euskal dantzan	22
* Iruñako Alde zaharreko konpartsa	24
* JAIK 2014	25
* Sagarrondoan loreetan	31
* Hackerrak	42
	47



Argitaratzailea ASTIGARRA Elkarte

Aldizkariaren koordinatze eta erredakzio lantaldea

ANTTON Arka, KIZKITZA Galarza,
ROXARITO Zabalegi eta MIEL JOXE Astarbe

Kolaboratzaileak

Isabel Almandoz, Ramon Santxez, Lourdes Odriozola, Andoni Arzallus,
Lorena Uriarte, Urkiri Salaberria, Gaizka Irigoien, Juantxo Zuaznabar,
Arantxa Arzamendi, Urtzi Leonet, Garbiñe San Miguel,
Xabier Urdangarin, Josu Tellabide eta Asier Agirresarobe

Babesle eta laguntzaileak

KUTXABANK, TXIMELA eta ASTIGARRAGAko UDALA

* Lege gordailua SS- 400 / 82* - Inprimategia: ANTZA

AZALAKo argazkia: Bortane baserria. Antton Arka



ANTXON AGUIRRE SORONDO

GURE IDAZLE EMANKORRARI AGUR ETA OHORE

ANTXON Aguirre, nuestro más leal y formal colaborador falleció el pasado 31 de enero, tras una larga y dura enfermedad.

Desde estas líneas queremos agradecer el entusiasmo, entrega y corazón con el que participó en la redacción de 25 grandes artículos sobre la historia de Astigarraga, que hemos tenido la oportunidad de recoger en nuestra revista.

Para nosotros siempre has sido y serás un referente significativo, tanto como historiador y como amigo. Antxon tu humildad y compromiso quedará siempre en nuestro recuerdo.

BETIRA ARTE ANTXON!





* **Hernani por el camino de Astigarraga**, en su lengua original *Ernani from the Astigarraga Road*.
Autor: Thomas Lyde Hornbrook (1830). Esta acuarela nos acerca a los medios de transporte de aquella época.

EL CAMINO REAL Y LA CASA DE POSTAS DE ASTIGARRAGA

Lourdes Odriozola

Desde el siglo XVI Gipuzkoa mostró tener una gran preocupación y un interés permanente por mantener en buen estado su red viaria por considerarlo una necesidad de primer orden en una provincia limítrofe con un país extranjero, asunto que, además, fue tratado reiteradamente en las Juntas Generales. Llegado del Siglo de las Luces la Provincia dio un paso más con la idea pionera de construir un nuevo Camino Real.

Esta vía de comunicación marcó un hito en Gipuzkoa. Concebida como una arteria integradora del espacio guipuzcoano, fue la plasmación de un plan que intentaba mejorar las comunicaciones intraprovinciales, reforzar los vínculos entre las localidades del propio vial y revalidar la condición estratégica del Territorio en el eje Madrid-Baiona. Se trataba de un proyecto de gran envergadura, costeado íntegramente con los recursos guipuzcoanos, que mereció la admiración de muchos de los foráneos que lo utilizaron.

Las obras del Camino Real se desarrollaron, en general, entre 1760 y 1779 siendo el tracista elegido el arquitecto guipuzcoano Francisco Ibero y el ideólogo de su financiación Martín José Areizaga. En el proyecto inicial, dispuesto ya para 1752, el ramal principal discurría entre Arlaban (junto a Leintz-Gatzaga) e Irun e incluía en el itinerario a las localidades de Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Legazpi, Urretxu, Zumarraga, Ezkioga, Itsasondo, Legorreta, Ikaztegieta, Alegia, Altzo, Tolosa, Irura, Villabona, Andoain, Urnieta, Hernani, Astigarraga, Errenteria, Oiartzun e Irun. Pero fue modificado con la eliminación del trayecto comprendido entre Oñati y Legazpia a través de Udana para ser reemplazado por otro que discurría por Deskarga para así llegar directamente a Urretxu.

La nueva carretera tuvo una longitud total de 378.947 pies (102,31 Km) y costó a las arcas provinciales la suma de 4.475.708 reales de vellón. Por lo que al tramo de Astigarraga respecta, tuvo una extensión de 18.090 pies (el 4'7% del trazado total) e importó una inversión de unos 223.000 reales de vellón, que fue abonada a lo largo de los cinco años que duró su ejecución.

Su construcción revalorizó el papel estratégico de Astigarraga en las comunicaciones terrestres de la Provincia al convertirse en un lugar de paso obligado para acceder a Navarra y Francia a

través de Irun, y punto de partida y/o salida de los ramales interiores de Hernani a Donostia y de Astigarraga al puerto de Pasaia.

Tras la conclusión de las obras, uno de los mayores problemas que se presentó fue el del ruido de los carros que “chillaban”. Con este motivo surgió la polémica de las llantas con que iban dotados los vehículos. La experiencia demostró que los carros provistos de llanta estrecha eran incompatibles con la conservación del nuevo camino, por lo que desde 1772 la Diputación dirigió continuamente circulares a los municipios comprendidos en el trazado del Camino Real, instándoles a proceder con el debido celo contra los carros de llanta estrecha y las rastras e imponiéndoles multas que iban de los 8 reales de vellón a 1 ducado. Así bien, se estableció una tasa por la utilización del vial, que había que pagarla en las cuatro aduanas que había en su recorrido (Leintz-Gatzaga, Zumarraga, Villabona e Irun), como medio persuasivo para estimular la colocación de llantas de mayor ancho y proporcionales al peso que tuviesen que soportar los carruajes y lograr, así, una mejor conservación de la carretera.

Su construcción revalorizó el papel estratégico de Astigarraga en las comunicaciones terrestres de la Provincia al convertirse en un lugar de paso obligado para acceder a Navarra y Francia a través de Irun...

Pero los carros de los comerciantes no eran los únicos que ocasionaban ruidos

en el Camino Real a su paso por Astigarraga, puesto que hasta la apertura del vial Andoain-Donostia en 1847 fue surcado por muchos de los pesados carruajes tirados por mulas de la Compañía Diligencias Generales de España. Concebido con un servicio rápido de transporte de viajeros, fue utilizado por muchos extranjeros, entre los que estuvieron varios escritores románticos de la época como Mesonero Ramos, Teófilo Gautier, Alejandro Dumas, Víctor Hugo... que nos dejaron constancia de su paso por Astigarraga.

Por los libros de derroteros de estos viajeros sabemos que las diligencias estaban pintadas con llamativos colores y que el personal empleado en ellas tenía una indumentaria muy vistosa, compuesta por un sombrero puntiagudo de terciopelo con borlas de seda, chaqueta oscura con alamares de color, unos calzones cuajados de botones de filigrana, polainas de cuero, corbata de colores y faja ▶

colorada. Muchos de ellos también hacen alusión a la inseguridad del viaje, por lo que al llegar a Irun y retomar el viaje para hacer la siguiente etapa, que culminaba en Astigarraga, los carruajes eran escoltados en su parte trasera por miqueletes para protegerlos de los bandidos.

Las diligencias partían de la estación de postas de Irun con dirección a Astigarraga a primera hora de la mañana. Tras salir del casco urbano de la localidad fronteriza, los pasajeros comenzaban a disfrutar de un paisaje encantador, que Gautier lo calificaba de “algo suizo”, salpicado de los rojos tejados de los caseríos del entorno, cultivos diferentes y bosques de árboles que hacían un fuerte contraste con las cumbres de las montañas que se perdían en el espacio.

Llegaban a Astigarraga a la tarde y no partían hacia Tolosa hasta la media noche. Aprovechando las pocas horas de luz que les quedaba, antes de hospedarse en la casa posada de “Zamora Chiqui” para reponer fuerzas, algunos de estos pasajeros salían a pasear por las inmediaciones, entre ellos, Teófilo Gautier. A él particularmente le llamó la atención la iglesia de Santa María de Murguía, de la que dijo tenía una “apariencia más guerrera que contemplativa”, y la gran campana suspendida que había en el claustro abierto a su alrededor.

Pero lo que le realmente le sorprendió fue la casa posada de “Zamora Chiqui” en la que pernoctó una noche. Regentada por Agustín de Urquizu y su mujer Catalina de Errazquin y tras el fallecimiento del cabeza de familia, por ésta y sus hijos, abrió sus puertas en 1823 cuando el matrimonio se hizo con su propiedad y con la de la casa Zamora ante el incremento del paso de viajeros por la localidad. En 1828 se incorporó al servido de la red estafetas o paradas de postas de la Compañía Diligencias Generales de España y como tal, sus arrendatarios se comprometieron a tener en sus cuerdas varias caballerías y los repuestos materiales que pudieren necesitar los coches.

La fama de esta posada rebasó las fronteras de Gipuzkoa. Considerada por Pascual Madoz como “quizá la mejor de todas las de la carretera”¹, las excelencias de sus instalaciones, servicio y gastronomía fueron, además, glosadas por el escritor Gautier en su obra *Viaje por España (Tras los montes)*².

Por lo que al local respecta, le impresionó la “blancura deslumbrante de la cortina, de la cama y de los balcones, la limpieza de los suelos, digna de las casas de Holanda, y el cuidado en todos los detalles”. Del personal encargado de su atención le sorprendió que fueran “unas muchachas hermosas y fuertes, con magníficas trenzas colgando sobre los hombros, bien vestidas y que no se parecían en nada a las maritornes que aguardábamos, iban y venían con una actividad de buen augurio para los clientes”. La cena, buena y bien servida, no se hizo aguardar y le pareció tan exquisita que la relató con todo lujo de detalles. Compuesta de una “sopa grasieta”, cocido de garbanzos y col con trozos de carne de vaca, ternera, chorizo, jamón, pimienta, salsa de tomate y azafrán –que les fue servido en fuentes diferentes para que cada comensal los mezclara en el plato a su gusto–, pollo, pescado frito (truchas o merluza), cordero asado, espárragos, ensalada y de postre, queso y almendras tostadas, fue, además de opípara y succulenta, no apta para cualquier estómago. Regó tan sabrosos manjares con un espeso vino tinto.

Llama la atención que en este menú no aparezca la sidra, máxime si tenemos en cuenta que cuando para esta época la calidad de las sidras de Astigarraga sobresalían sobre las del resto de Gipuzkoa y algunos viajeros se hicieron eco de ello pero, también, porque la casa de postas contaba con varios manzanales entre sus pertenecidos.

Tras la apertura de la carretera Andoain-Donostia en 1847 muchos vehículos dejaron de transitar por Astigarraga y al poco tiempo la posada cerró sus puertas porque dejó de ser un negocio rentable. En 1849 las monjas agustinas compraron este inmueble para instalar en el convento de la comunidad.

No cabe duda alguna que Astigarraga no sólo fue uno de los municipios de Gipuzkoa a los que más les favoreció la construcción del Camino Real, sino que merced a él y a la posada de “Zamora Chiqui” la localidad fue un referente de primer orden para el hospedaje de los viajeros. ■

1) MADOZ, Pascual: *Guipúzcoa 1845-1850* (Edición facsímil). Salamanca: *Ámbito-Juntas Generales de Gipuzkoa*, 1991, p. 26.

2) Toda la obra puede ser consultada en http://www.bocos.com/dwgautier_indice_itinerario.htm.



1. irudia: Lupulu landarea.

LUPULUA

Ergobia-Astigarragan

Lupulua (*Humulus Lupulus*), humulus generoko hiru landare espezieetako bat da, cannabinaceas familiakoa da (*Cannabis*-ak dituen efektu lasaigarri berdinak ditu) (1. irudia). Landare igokari motakoa da, hosto iraunkorrekoa. Zortzi metroko altuerara heldu daiteke eta bere bizi iraupena 12 urtetik 15erakoa da (2. irudia).

Lupuluak hibernatze periodo bat du, hotza datorrenean kimuen heriotza ekarriko du lur azpiko zurtoin edo errizomak bizirik iraungo dutelarik. Lore emeak eta arrak landare bereizietan sortzen dira, baina lehenengoetatik bakarrik ateratzen da erretxin itsaskorra (alfa-azidoak). Erretxin hau, garagardoari disolbatzerakoan, zapore, mikeltasun eta usain gozoa ematen dizkio, eragile egonkortzailea emateko ere erabiltzen da. Lore emeak kolore berde argiokak dira eta lore arrak kolore hori berdexkak [1], [2] eta [3].

Orain dela 62 urte, 1952an, Astigarraga eta Ergobiko zenbait pertsona lupulua jasotzen ibiltzen ziren, bakoitzak egunero 25-28 kg lupulu jasotzeagatik 5 pta./eguneko ordaintzen zitelarik. Hernaniko Leoka baserriko lurretan lan egiten zuten lupulua jasotzen, handik Ergobira ekartzen zuten zaldi karroarekin, bi bidaia egiten zituztelarik (3. irudia). Estanco taberna pareko etxe zaharrean, Otaño etxean, lehortzen zuten Lupulua, geroago paketean bidaltzeko.



2. irudia: Lupulu saila posteekin.



3. irudia. Lupulua jasotzen

Ergobia eta Astigarraga tartean zegoen Josebeltzane etxeokoen, Desiertoko baserria zeritzonak, Ergobiko desiertoan Lupulu sail txiki bat zuten Hernanikoarekin alderatuz 1/10 tamainakoa.

Hernaniko Leoka baserriko lurretan Lupulua jasotzeko garaian, uztailean, 30-40 pertsona aritzen ziren lanean. Uzta garaia pasa ostean, abuztuan zehar, landare saileko alanbreak garbitzen Ergobiko Inaxio Alberro eta Paquito Erdocia besterik ez ziren aritzen.

MIKEL Alberro Astarbe

Erreferentziak

[1] <http://www.fabricarcerveza.es/blog/item/129-el-lúpulo-características-y-cultivo-en-españa> (14/06/2014)

[2] <http://www.cervecear.com/wp-content/uploads/2014/05/LÚPULO-1.jpg> (14/06/2014)

[3] <http://www.cervecear.com/wp-content/uploads/2014/05/LÚPULO-17.jpg> (14/06/2014)

NUESTRAS CAMPANAS

Acostumbrados hoy al ruido, al barullo en nuestras calles y plazas, a que la información llegue a través de la televisión, la radio, los periódicos y ahora a través de Internet, se nos hace difícil imaginar un tiempo en el que únicamente el sonido de las campanas de las torres de nuestras iglesias, ermitas, conventos y ayuntamientos era el encargado de marcar el ritmo de los días y de transmitir noticias y acontecimientos. Y de eso no hace tanto tiempo, o, al menos a mí, que ya soy una octogenaria, no me lo parece. En esta ocasión se me ha ocurrido rendir un pequeño homenaje a ese instrumento musical tan difundido por el mundo entero y utilizado en todas las culturas ya desde los tiempos remotos de nuestra historia.

También en nuestro pueblo de Astigarraga las campanas jugaron un importante papel en nuestras vidas, tanto cuando repicaban anunciando las grandes festividades como cuando anunciaban el fallecimiento de alguno de nuestros vecinos o vecinas, tocaban convocando a reunión o previniéndonos de fuegos o inundaciones o simplemente daban la hora.



LAS CAMPANAS DE LA PARROQUIA. En mis recuerdos de niñez, el tañido de las campanas de la parroquia siempre está presente. A veces un tañido grave, otras veces alegre, tañidos fúnebres y tañidos de urgencia. Desde nuestra más tierna infancia sabíamos interpretar las variadas claves utilizadas por los campaneros y sacristanes para dar las noticias y para llamar a las misas, oraciones y rosarios. Era algo consustancial al hecho de ser vecino, de pertenecer a una comunidad. Las campanas han estado desde siempre en la torre de nuestra iglesia, y todavía se conserva la campana principal fija del año 1718, y dos de volteo más pequeñas de época posterior que han sido ya electrificadas. Viene bien al caso una información que leí hace un tiempo en la historia sobre Astigarraga que escribió el fallecido Antxon Aguirre Sorondo sobre que la torre de la parroquia albergó hasta finales del siglo XIX un reloj encargado y mantenido por el ayuntamiento. Y que aunque nosotros no llegamos a conocerlo, aún se conserva en la torre de la iglesia la maquinaria de un antiguo reloj del siglo XVIII construido por los relojeros Yeregui de Zumaia. Parece ser que era muy habitual en nuestros pueblos que en las torres de las iglesias hubiera también relojes que eran propiedad y responsabilidad de los ayuntamientos; ubicados en los edificios más altos se podían ver desde todos los rincones de los pueblos. Así que durante unos siglos en Astigarraga convivieron en feliz armonía las campanadas que anunciaban los ritmos de la vida eclesial con las campanadas que marcaban el paso de las horas y de los trabajos de los lugareños.


RELOJ DEL AYUNTAMIENTO. Otro de los sonidos que recuerdo con nostalgia era el de las campanas del reloj del ayuntamiento, un tañido cantarín que entraba en todas las casas de la plaza y se desparramaba por la cuesta y llegaba sin ninguna dificultad hasta Arkubide. Un servicio que los ayuntamientos antiguos pusieron a disposición de la comunidad, como una aportación de modernidad y de estatus. Hoy es el día en el que el reloj del ayuntamiento sigue dando las horas, las medias y los cuartos con una continuidad que hace que el pasado se funda con el presente.



CONVENTO DE LAS MONJAS AGUSTINAS, instalado desde el siglo XIX en una antigua casa de postas en el camino hacia Ventas, están también en mi memoria y seguro que también en la de las personas de mi edad que han crecido y vivido en esa parte del pueblo o que, como en mi caso, han tenido alguna pariente monja. Las campanas del convento que en este caso ordenaban la vida de las monjas, su tiempo de oración y trabajo, el ángelus, las vísperas, también las celebraciones religiosas, sobre todo de la Semana Santa, formaban parte de nuestra vida, estaban integradas en el paisaje, como se dice ahora. Nos recordaban que tras las tapias del convento había unas mujeres, también vecinas, que llevaban una vida muy diferente a la del resto de la comunidad. Recuerdo ese tañido como femenino y dulce, nada que ver con el tañido de las importantes campanas de la parroquia. Cuando las monjas se trasladaron a su nuevo convento de Ipintza llevaron consigo las campanas que habían sido el referente de su vida en la antigua casa de postas.



ERMITA DE SANTIAGOMENDI. Dejo para el final el sonido de las campanas de la ermita de Santiagomendi, para mi alegres y festivas, asociadas a la fiesta de Santiago, a la romería que culminaba con la Misa Mayor en la ermita, a los puestos de comida, chucherías y curiosidades, a la reunión de los vecinos y vecinas vestidos con nuestras mejores galas. Ese sonido que aún hoy se esparce por el monte y llama a la reunión, como lo haría seguramente con los antiguos peregrinos que siguiendo el camino de Santiago transitaban por nuestros montes. Seguro que el tañido de esas campanas les reconfortaba en la seguridad de que iban a encontrar un lugar a cubierto para descansar.



Como decía al principio, este año podríamos dedicar un pequeño homenaje a las humildes campanas, a las que todavía están en activo y las que ya están jubiladas, también a nuestros campaneros como Txomin San Sebastián. Quiero terminar haciéndome eco de lo que dicen personas expertas en la materia en el sentido de que el sonido de las campanas de iglesias, ermitas y ayuntamientos forma parte de nuestro patrimonio cultural, de ese patrimonio que aunque no es tangible, sigue todavía en nuestra memoria.

Isabel Almandoz Almandoz



ANDONI Gartzia alkate gaztearekin hizketan

Aldizkariko lantaldeko bilera batean, elkarrizketa nori egingo ari ginela, elkarrizketa alkateari berari egiteko ideia sortu zen. Gure alkate gaztea ezagutu nahi genuen. Ez zigun jakin-minik sortzen alderdi jakin bateko alkateak politikagintzaz esandakoak, Andonik berak herriaz eta herrigintzaz duen iritziak baizik. Jakin-min horrekin hurbildu ginen lantaldekook udal-etxera, 27 urte dituen eta enpresa ikasketak eginak dituen gaztearengana.

Orain hiru urte alkate izendatu zintuztenean, ez ziren asko izango zu baino alkate gazteagoak EHN. Zein ikuspegi berezi eman diezaioke gazte batek alkatetzari?

Gure legegintzaldian badaude gazteak, baina bai, gaztea naiz alkate izateko. Askotan alkatea gizonetzko helduarekin identifikatu ohi da. Baina uste dut gazteok ere erakutsi dezakegula lan egiteko gai garela. Gazte izanda beste alkate batzuk ibiltzen ez diren lekuetan ibil gaitezkeela uste dut.

Zer pasa zitzaizun burutik aginte makila eskuetan jarri zizutenean? Norekin gogoratu zinen? Zein izan zen zure sentipena?

Sentsazio arraroa, ni hor 11 zinegotziren buru ikusita, baina lanerako gogoz. Ardura ere hor zegoen, itxarondako aldaketa baten unea. Une hartan denak nahiko ez jakinak ginen, ez genuen udala ezagutzen, eta bertigo pixka bat, baina gogoia eta ilusioa ere bai, eta jendearen babesa. Hauteskundeak bereziak izan ziren, hutsetik hasi ginen, zerotik hasi behar izan dugu.

Ikasketak ere lagungarri izango ziren horretan ezta?

Bai, bada abantailatxo bat. Hirigintza eta ogasuna edo kudeaketa ekonomikoa izaten dira nagusi eta horretan badut bai abantailatxo bat.

Hauteskundeetako publizitatean eta kanpainan aipatutako gaiak alde batera utzita, zer ikusten duzue zuk lorpen pertsonal moduan, zu gustura sentiarazi zaituena?

Alde horretatik begiratuta niretzat oso berezia izan da auzoetara joatea, eta auzotarrekin biltzea. Kasu batzuetan gauzak eskatzeko, kritikak entzuteko izan da. Une batzuetan haserretu zaizkigu, baina uste dut ba-

loratu dutela beraingana hurbildu izana, batez ere kanpoaldean dauden auzo horietan.

Eta beste herrietara joaten zarenean, aldatu al da zure jarrera? Konparatzen al dituzue herri horiek Astigarragarekin?

Orain gehiago fijatzen naiz, batik bat hondakinen gaiarekin. Gainerako lekuetan nola egiten duten begiratzten dut. Gainerako lekuetan kaleak eta bestelakoak nola dauden gehiago begiratzten dut orain. Txikikeriak dira, baina begiratu eta argazkia ateratzen dut, batez ere atzerrira joandakoan, aldea handiagoa delako.

Zein da zure ustez Astigarragak herri gisa duen arazo nagusia edo premia?

Arazoak ugari, baina uste dut leku guztietan bezala ekonomia eta langabezia direla nagusi. Alde horretatik udalak ez du eskumenik, eta eskuak lotuta ditugu, baina ahal dugun neurrian laguntzen ari gara. Eskualdean Astigarragak nahiko egoera ona du, baina arazoa hor dagoela ukazina da.

Euskararen erabileraren gaia ere arazotzat hartuko nuke. Gero eta gutxiago erabiltzen da, eta herri euskaldunaren izaera hori galtzen ari gara. Neurri batean kanpotik etorri direnen eraginez izan daiteke, baina ez da bidezkoa beraiei goztea erru guztia.

Aipatu dituzun bi arazo horiei agintean egonda ez aurre egin ahal izateak zein sentsazio sortzen dizue?

Inpotentzia, bai, baina saiatzen gara kasu horietan zeharka zerbait egiten, esate baterako, diru-laguntzen bidez edo etxebizitzaren politika desberdinaren bidez. Hala ere inpotentzia handia da. Guk oso zail dugu lanpostuak sortzea, gehienez ere 6 hilabeteko kontratuak egin ditzakegu, baina horrek ez du egoera konpontuko.

Gaiari beste aldetik helduta, alkate lanpostuan soldata duina izango duzu ziurrenik, orduak ere asko izan arren. Zer esango zenieke Astigarragako gazte langabeei? edo 1000 euroren truke ordu mordoa lan egin behar duenari? Langabe bazina, zer egingo zenuke lan duina lortzeko?

Nik uste dut arazoa ez dela indibiduala, eta beraz nik uste elkar hartuta egin behar diogula aurre egoera honi. Arazoa globala denez, antolatu egin beharko genuke. Ni egoera berean dauden beste batzuekin elkartzen saiatuko nintzateke, nolabait ere presioa egiteko, mugiarazteko. Ziurrenik udalak eta bestelako erakundeak ere kritikatu egingo nituzke, ez diotelako arazoari irtenbiderik ematen. Hori normala da, eta ulertzekoa.

Non kokatzen duzu zuk herri mugimendua? Zer da zuretzat?

Nik uste dut izaera propioa izan behar duela. Udala gauza bat da eta herri mugimenduak bestea izan behar du, baina batera egin dezakete lan, eta sintonia berean izatea izango litzateke onena. Herri mugimenduak bere autonomia izan behar du, eta eskatu behar duena eskatu behar du, udalari edo dagokionari. Udala herriaren eskariari erantzuteko dago eta alde horretatik herri mugimenduei erantzuteko. Udalak ez die esan behar zer egin behar duten.

Zein balorazio emango zenioke herri mugimenduari?

Uste dut sekulako lana egin dezaketela, eta udala iristen ez den lekuetara iristen dela. Herri mugimenduek norabidea markatzen lagundu behar lukete. Eta horretan nahiko justu gabilta, agian asko hazi delako denbora gutxian. Horretan uste dut zeresan handia izan dezakeela ikastolak, bertan mugitzen baita herritarren zati handi bat, eta integrazioarako bide handia da. Agian ez dugu asmatu herritarrak integratzen, ez dugu jakin handitu ahala egituratzen. Aldaketa oso azkarra izan delako, eta ezin izan delako guztia asimilatu. Aurten esate baterako, 500 gehiago gara, 5.500 biztanlera iritsi garelako, eta horri aurre egitea oso zaila da.

Herri bat egituratzea zure esku balego, nola antolatu zenuke, zeren inguruan, ondo funtziona dezan? Zein izango lirarteke zutabe nagusiak?

Lehenik, euskara. Euskaraz bizitzea bermatu beharko lukeela iruditzen zait. Bestetik, herri bizia izateko merkataritza behar da, saltokiak. Tokian tokikoa kontsumitzea, baserritarrekin eta dendariekin sarea sortzea. Tamainak ere egokia izan behar du, uste dut ezin dugula hazi etengabe. Modu horretan antolatutakoa guztion herria izango litzateke, herri bizia.

Orain arteko lorpenik handiena, esanguratsuena?

Ba, Jaurlaritzak ikastola handitzeko lanetan laguntzea, nahiz eta oraindik ez den ofiziala. Oraindik ez da gauzatu, baina badakigu laguntza izango dela. Sinbolikoki

garrantzitsua da Urumeako Kronikaren sorrera, euskara sustatzeko tresna baliagarria izan daitekeelako. Ez da ezer berritzailea, baina urrats bat izan daitekeela uste dugu, Hernanin izan duen eragina kontuan izanda.

Amaitzeko, bada aipatu nahi zenigukeen mezuren bat. Nahi duzuna, gai librean...

Nik jendea animatu nahi nuke udaletxera etor dadin, esan behar duena esatera. Nik parte hartzera animatu nahi ditut. Udalean 11 zinegotzi gaude, udal gobernuan 7, eta ezinezkoa iruditzen zait horiek 5.500 lagun en iritzia ordezkatzeko. Hori aldatu egin behar dugu nolabait. Guk gure ardura dugu, gure gain hartzen dugu, baina uste dut ezin dugula guztion norabidea erabaki. Herritarrek ahalmen handiagoa izateko bidean aurrera egin behar dugu. Hori da bidea guztiok eroso sentitzeko herri honetan.

Azkenik, zein da pasa duzun unerik txarrena, gogorrena? Eta onena, goxoena?

Atez atekoaren ingurukoa zaila izan zen, tentsioarengatik, jende asko haserre... Baina pertsonalki uste dut erabaki ona hartu genuela, eta ez naiz damutzen. Eta onena, egoera zailean zegoen familia bat eskerrak ematera etorri zitzaidanekoa. Ahalegina egiteak merezi duela ikusten duzu horrelakoetan. ■

Motzean:

Musikaririk gogokoena: **Manu Chao**

Libururik onena: **nobela historikoen zale gisa, Toti Martinez de Lezearen edozein liburu.**

Jakirik gozoena: **arroza, edozein eratara**

Lekurik ederrena: **Astigarragan, Santiagomendi, bestela Aizkorriko parajeak.**

Oporraldirik onena: **Peru eta bereziki, Camino Inka**

Pertsona eredugarria: **guztionez etorkizun hobea baten alde borrokatzen duen oro.**

Txikitako oroitzapena: **Amonaren etxean baratzan ibiltzen nintzenekoa.**



ARANTZAZUKO AMA IKASTOLAREN 45. URTEURRENA ENBOR SENDOTIK ADAR BERRIRA

Arantzazuko Ama Ikastola 1968. urtean sortu zen. Hasiera batean, auzo bakoitzak bere ikastola txikia izan zuen, eta 1972. urtean denek bat eginez, Arantzazuko Ama Ikastola sortu zuten.

Urte luzeko ibilbidearen ondoren, 2013-14 ikasturtean ikastola bitan banatu eta Astigarragako eta Martuteneko egoitzek beren bidetari bereiz ekitea onartu zuen aho batez Ordezkaritza Organo Gorenak. Banaketa, beraz, 2014-15 ikasturtean gauzatuko da: alde batetik, Arantzazuko Ama Ikastola (LH eta DBH) eta bestetik, Astigarragako Herri Eskola (LH).

Banaketaren aitzakian, eta ikastolak aurten 45. urteurrena duela kontuan izanik, Ikastola Egun berezia antolatu zen ekainaren 6an, 45. urteurreneko festa handia.

Ikastola Egun horren baitan, oroigarri gisako plaka bana jarri ziren Loiola, Ergobia eta Martutenen. Ekitaldi horien ostean, eguerdian, ekitaldi nagusia Martuteneko ikastolan izan zen. Bertan berariaz egun horretarako prestatutako abestia abestu zuten oholtza gainean ikasle ohi eta ikasleek. Ekitaldiaren ostean, bazkaria, 850 lagun bildu zituen (ikasle, guraso, sortzaile, irakasle eta ikasle ohi), eta bazkalosteko giro ederrean, musika alai eta dantzagarria.



Plaka jartzeko ekitaldia Ergobian

“Garai hartan, eta gaur bereziki eskertu nahi ditugun guraso, laguntzaile eta irakasle talde batek, beraien seme-alaben hezkuntzaz kezkatutik, gure hizkuntza EUSKARA aurrera atera nahirik, herri ekimenari eta auzo lanari loturik pauso garrantzitsua eman zuten.

Urtez urte, urte zailak tarteko, guraso, laguntzaile eta irakasle gehiago bidean elkarturik iritsi gara honaino. Euskal Irakaskuntza sendo bat izateraino.

Urte guzti hauetan, Arantzazuko Ama Ikastola osatu dugun ikasle, guraso, laguntzaile, langile eta irakasle guztiok famili handi bat osatzen dugu eta luzaroan adierazia gera dadin oroigarri bat ipiniko dugu”.

Hainbat une hunkigarri izan ziren egunean zehar. Bertan ikusi genituen aspaldi ikusi gabeko ikaskide, irakasle eta gurasoak, zein baino zein urduri eta hunkituago. Alabaina, gure hitzek baino hobeto islatuko dute ekitaldi horietako berariaz prestatu diren bertsoek eta irudiek egun horretan bizi eta adierazitakoa. Beraz, hementxe dituzue:

Ekitaldietarako jarritako bertsoak

Doinua: Iparragirre abila dela

Egilea: Agin Laburu

LOIOLA

*Maite Zugadiandereinota
adin tarte hiru-lau,
15 umez hasi genuen
bideak aurrera dirau.
Jardun arren elizan
kristau onaren gisan,
lanean egun eta gau
batzuk Jainkoa eskertu arren
pertsonek egina da hau.*

*Hirurogeita hamargarrena,
Frankismo garai beltzean,
kimu berri bat sortzen ari zen
Donostiako ertzean,
ezpaikinen egongo,
ez gaizki ta ez ondo,
aitzindaririk ezean,
lehenengo gelak sortu baitziren
horma hauen babesean.*

MARTUTENE

*Sakristian, zein Agustinotan,
Villa Pilar etabarren
teilatupean egin zen lanak
hara ze bide zekarren!
Urteak iraganda,
ikastola izan da
nola heldu, hala haurren
izaerari eutsi diona
teilatuz aldatu arren.*

*Ezin da ahaztu Amundarainez,
Villa Pilarren luxuaz,
Miren Josune Tolaretxipiz
ta militantzi kutsuaz.
Martutenen gaur egun
nahiz ta gozatzen degun
udaberi loratuaz,
izena hemen geldituko da,
izana gogoratuaz.*

ERGOBIA

*Astigarragan begira gaude
iraila mugarri denez,
iraganera nostalgiaz ta
aurrera itxaropenez.
Ergobia aurrean,
Colegio zaharrean,
hasi zen guztia berez.
Nondik gatozen ez zaigu ahazten
nora goazen ere ez.*

*Hirurogeita zortzi urtera
luzaturik begirada
lehenengo gelak ekarri zuen
atzetik ume ilara.
Izaki auzi bera,
bata da hasiera
ta bestea norantza da
lehenengo euskal gela zenetik
euskal irakaskuntzara.*

Amaitzeko, ekitaldi nagusirako Izarne Zelaia guraso elkarteko kudeatzaileak prestatutako bertsoa, hurrek ikastolan abesteko eta edalontzien laguntzaz musikatzeko prestatu dutena:

*Euskaraz bizi nahi dugu,
eskuz esku buruz buru,
ta mingainari eragin euskara
bilaka dadin gure mundu*

*Guztiok batera,
urrutira heldu gera,
zorionak ikastola
ez da heltzen edonola,
45 urtera*

*Gu beti hain gertu,
Asti, Loiola ta Martu,
urte luzeetako lana da
Arantzazuko Ama,
ta gaur nahi degu eskertu*

*Bide berri bat hasia,
badugu zer ikasia,
nahiz ta izan bananduta
lanak jarraituko du ta
loratuko da hazia*

*Guztiok batera
urrutira heldu gera,
zorionak ikastola
ez da heltzen edonola,
45 urtera*



KIZKITZA Galarza

BASERRIAREN BALORE ETA BALIOAK

Beste gizarte industrializatuetan bezala, Euskal Herrian nekazal, abeltzain eta basoen jardueren gutxitze prozesua jasaten ari gara. Prozesu honen jatorria ez da gaurkoa eta denboran atzera bilatu beharko genuke. Modu argian ekartzen dituen ondorioak dira eskulana okupatzeko posibilitateen galera, gizartean duen karga ekonomikoaren minimizazioa eta lurraren azpi-erabilera.

Baina badira lehen sektoreak dituen beste funtzio oso garrantzitsuak, elikagaien produkzioa eta produkzioarekin erlaziorik ez dutenak, ingurugiroaren kontserbazio, oreka eta antolaketa.

Guzti hauek oso nabarmenak diren arren, badira beste esparruak non baserri eta baserritarrek beren balore eta balioak maila gorenera altxatzen dituzten, hala nola, hizkuntzarekin lotutakoak, euskara-euskalki, euskal hitz, izen, esamolde eta irteerak, ohitura, bizimodu eta bizibideak, lanerako modu eta erremintak eta ingurunearekiko aprobetxamendu, errespetu eta ezagutza.

Nahiz eta baserritarren artean ere, gizarteko esparru guztietan bezala, ardi zuri eta beltzak ere badauden, badira, neurtu ezinezkoak diren beste baloreak, esaterako: jatorrasuna, konpromisoa eta elkarlana bezalakoak. Auzolana litzateke guzti haue-tan gailentzen den adibidea, baino ez bakarrik. Mi-

resgarria da, esfortzu asko eta fruitu gutxi ematen dituzten baserri jarduerak nolako tinkotasun eta apal-tasunez egiten dituzten.

Gutxi dira neurri gabeko harrotasun eta be-rekoikeriak bultzaturik zentzu gabeko gehiegikeriak egiten dituztenak. Jaio diren lur eta baserriak zaindu eta maitatuz, etorkizunari begiratu, ustiapen jarduera orekatuak burutu izan dituzte, beren lur eta basoetan. Naturak eta lurak ematen dituzten baliabideak mu-gagabeak direla dakite, berarekiko errespetua man-tenetzen den neurrian eta beraiekiko harmonian bizi-az.

Hori bakarrik ez, naturarekin orekan aritzeaz aparte, ilargiarekin daukagun erlazioari ere begira-tzen diote. "Halako landarea ilbeheran landatu beha-rra da!!! Beste horrelako hazi halako egunetan!!! "Buruan egutegi biodinamiko argi baten egitura edu-kiaz, bere bizimodu eta lanbidea bertara moldatu ohi dute.



Kontuan hartu beharrekoa da baita ere zenbat eta zenbat animalia arraza, landare mota eta klase mantendu diren baserrien baitan. Adibidez, oilo maraduna, betizua, ahuntza azpigorria, euskal txerria, anpolai eta txerri-ginga gerezi motak, muxikak, sagardotarako sagar mota asko eta asko, euskal artzain txakurra... Interes komertzial eta industrialik gabekoak zirenak, baino bertako klimatologia, izurrite eta beharretara oso ongi egokitutakoak, eta gaur egun nolabaiteko interesa suspertu dutenak, batez ere euskal txerriak eta zer esanik ez sagardotarako sagarrek. Baserritarren lanari eta interesari esker dauzkagu gaur egunean, gure artean.

Aldi berean, zenbait herri bide, gurdi bide eta basoen mantenimendu, garbitasun eta txukuntasunaren ardura ere izan ohi dute. Herri zerbitzuak iritsi ezin daitezkeen lanak eginez eta suteetan eragin mesedegarria edukiaz.

Zer litzateke gure baserritarrek balore eta balio hauek urteetan eta belaunaldietan zehar mantendu izan ez balituzte?

Argi dago, berauek balore kultural, etnografiko eta naturalen gotorleku direla. Beren egoera kaxkarrari buruz jarraian hitz egin eta kexatzeari soilik aritu ezker, ez dugu ezertxo ere aurreratuko eta beharrezkoa egiten da kaletarren artean balore hauek ezagutaraztea eta baserritarrek hori egiteko erraztasunak ematea.

Ezagutarazi zertarako? Nola estimatuko ditugu balore hauek, ezagutzen ez baditugu eta existitzen direnik ere ez badakigu?

Esan bezala, beharrezkoa egiten da, areago, derrigorrezkoa litzateke, herritarren aldetik eta zentzu honetan baserritarrenganako errekonozimendua luzatzea eta aldi berean, baserritarren aldetik balore horiek herritarroi kaleratzea eta partekatzea.

Euskal nortasunaren, hizkuntzaren, kulturaren eta ondare arkitektoniko, etnografiko eta naturalen funtsezko partaide garrantzitsu diren neurrian, zaindu eta estimatu beharra dauzkagu.


Honekin lotuta, eta balore hauek mantendu eta babestu dituzten baserritarrei lagundu eta babesa eman asmoz, Goldea taldeak, baserritar eta herriko eragile desberdinek bultzaturik, Astigarragako udalari baserritarren inguruko azterketa sozioekonomiko bat egiteko proposamena luzatu dio eta udalak azterketa hori burutzeko erronka bere esku hartu du. Pasa den San Isidro egunean halaxe eskertu zioten publikoki baserritarrek udalari.

Espero dezagun ekimen hau eta ateratzen diren ondorioak, proposamenak eta alde guztiek agertutako borondate ona, eraginkor diren neurrietan gauzatzea.

Ez da lan xamurra izango!!

GAIZKA IRIGOIEN





Non daude Euskal herriko barazki eta fruta-arbolen barietateak?

MAIALEN ARRIETA ASEGINOLAZA
Aranzadi Zientzia Elkarte

Gai honi eusteko ezinbestekoa da lehenik eta behin bertako barietatea edo barietate tradizionala zer den zehaztea; hau ordea, ez da lan erraza, ez baitago tokiko barietatea argi mugatzen duen definiziorik. Dena den, gai honen inguruan azken urteetan egin diren lanetan erreferentziak topatuz, ondorengoa onartu dezakegu: urteetan zehar nekazarien familiek egindako hobekuntza eta aukeratzearen ondorio dira tokiko barietateak (barietate tradizionalak) eta bizi diren tokiko baldintzei eusteko moldatuta daude.

Gurean, ondare honen ezagupena zabaldu eta gordeztearen inguruan lan handia egiten du Euskal Herriko Hazien Sareak. Hauek egindako ikerlanetan, tokiko barietatea zehazteko 2 irizpide zehazten dira: (1) gutxienez bost urtetan erabili izan diren haziak urteko landareen kasuan eta hamar urte bi urteko landareen kasuan eta (2) duela gutxi eskuratutako barietate komertziala ez izatea (belaunaldiz belaunaldi edota elkartruke bidez jasoa izatea adibidez).

Nekazaritzaren bilakaeran, XX. mendetik gaur arte landareetatik lortutako etekinak hobetzeko teknika berriak erabiltzen joan dira eta aspaldiko barietateen

ezaugarriak garrantzia galtzen joan dira pixkana (intsektu kaltegarriekiko berezko erresistentzia, lehortea jasateko gaitasuna, loraldiaren iraupen luzea...). Bilakaera hau horrela izanik, bertako barietateen kalterako, barietate hibridoak edo laborategian sortutakoak sustatu dira, ongarrri eta produktu kimiko ugari behar badituzte ere, uzta mekanizatura egokitzeaz gain, etekin handiagoak ematen dituztelako.

Munduko toki askotan Iraultza Berde hau aurrerapauso handizat jo zen nekazaritzaren ekoizpena handituko zelakoan. Honek ordea, gainbehera genetikoak ekarri du, espezie eta barietateen gutxitzea alegia eta

biodibertsitatearen eboluzioan parte hartzen duten prozesuen etenaldia. XX. mendearen hasietarik gaur egun arte nekazaritzako biodibertsitatearen %75 galdu da; Euskal Herrian esaterako, perraitza, txiribila eta aixkola bezalako espezieak baratzetatik desagertu dira.

Biodibertsitatearen galera gainera ez da herri baten ondareari bakarrik dagokion gertaera, alor gehiagori ere eragiten die. Izan ere, gizakion elikadura beharrak asetzeko aldatu eta sinplifikatzen diren ekosistemak, izurriteen aurrean zaurgarriagoak bihurtzen dira; agente patogenoen aurreko babes mantentzeko tresna garrantzitsu bat galtzen baitute, dibertsitate genetikoa alegia.



Orokortasunak alde batera utzita, Donostialdeko eskualdera bagatoz, jakin badakigu, kostaldeko herrietako arrantzarekin batera, industria dela bertako jarduera ekonomiko nagusia. Hala ere, auzo batzuetan oraindik ere badira nekazaritza konbentzionalaren aztarnak. Euskal Herriko Hazien Sareak eskualde honetan aurrera eramandako azken lanen arabera, Donostialdeko nekazaritza konbentzionalan erabiltzen diren bertako barietateak honakoak dira: cabello de angel kalabaza, porrusalda kalabaza, Tolosako indaba, leka igokaria, piper txorizeroa, pipermin txikia, entsalada tomatea, tomate morea, peradun tomatea, tokiko zerba, neguko aza, udaberriko aza, kipula gorria, kipula zuria eta tokiko perrexila. Barietate hauen guztien artean ordea, Tolosako indaba, piper txorizeroa eta entsalada tomatea dira gehien erabiltzen direnak.

Donostialdeko eskualdean, eta bereziki Astigarragan, bada nekazaritzaz gain, baserriar munduarekin lotura mantentzen jarraitzen duen usadio bat: sagardogintza. Mendeetan zehar egin den sagardoak, bilakaera izugarriak jasan ditu, baita sagar eta sagarrondoek ere, ingurune aldaketei moldatuz eta eboluzionatuz joan baitira. Lekuan lekuko sagar barietateak ugariak izan arren, barazki barietateekin bezalaxe, azken hamarkadetan dibertsitate galera handia jazo da. Hona hemen bertako sagar barietate batzuk: Errezila, Geza-mina, Goikoetxea, Moko, Txalaka, Mozoloa etab.



Bertako barietateen gainbehera hau gelditzeko, hainbat arlotan aurrerapausoak ematea beharrezkoa da: ikerkuntzan (egoera zehatza zein den ezagutzeko), legedian (barietate tradizionalen alde egiteko), administrazio publikoen diru-laguntzetan (nekazariak barietate tradizionalen alde lan eraginkorra egin ahal izateko), zein hezkuntzan (egungo egoerarekiko kontsumitzaile arduratsuak izateko). Baina zer egin dezakegu guk? gaur egun bertako barietateak oso pertsona gutxik mantentzen dituztela jakinik, desagertu ez daitezen, barietate hauek erabiltzea komendi da, eskuz esku eta ingurunez ingurune zabalduz. Honenkin batera, barietate hauen haziak jasotzea ere gomendatzen da, ugalketa eta banaketa landan bertan eman dadin.

Egunez egun, landaz landa eta bailaraz bailara, kontzientzia honen hazia ondokoarengan ereinez gero, gure ondorengoek ere izango dute bertako barietateen altxorraz gozatzeko aukera.■

¿Qué es la PERMACULTURA?

Hay varias definiciones, una puede ser la siguiente: **es el diseño consciente de paisajes que imitan los patrones y formas de la naturaleza mientras nos suministran de alimento, energía y materiales para satisfacer las necesidades locales.** La Permacultura ilusiona cuando se conoce. Busca imitar a los bosques naturales que no requieren mantenimiento, en ellos nuestro papel es el de observar para corregir cualquier deficiencia y recolectar la cosecha, poco más. Esto requiere, no obstante, un trabajo inicial de establecimiento del sitio hasta que este se consolida, en esa fase el trabajo es intenso ya que requiere realizar infraestructuras para cosecha de agua, etc.

VICTOR BARAHONA



Asimismo se requiere una gran capacidad de observación para ver las conexiones entre las distintas partes y hacer un buen diseño. **Lo que caracteriza a la Permacultura, lo que la hace diferente, es que hay un diseño, es holística**, todas las cosas están conectadas y hay una sinergia. Conseguir esto es muy difícil pero es un objetivo a alcanzar. Inicialmente comenzó aplicado al diseño de fincas pero poco a poco se extendió a otras facetas como la economía (redes de trueque...) tecnologías apropiadas, etc. Lo que comenzó como agricultura se transformó en cultura, “cultura de la permanencia”.

Se aplica tanto a pequeña como a gran escala, desde un balcón o patio hasta una gran finca de muchas hectáreas. También a nivel de comunidades, pueblos e incluso grandes ciudades. El “movimiento de transición” se desarrolla en ciudades y fue fundado por un permacultor, Rob Hopkins..

Su filosofía choca bastante con la manera actual de hacer las cosas, ya que busca el policultivo, producciones pequeñas pero muy diversificadas (donde la producción total será mayor). Se busca una reducción de uso de combustible, energía y entrada de recursos al sistema. Esto complica el mecanizado y puede hacerlo poco rentable comercialmente, pero es que la permacultura no busca competir, sino ser autosuficiente, sostenible, regenerador de la tierra... ¿Qué precio se le puede poner a eso?

La permacultura nació en la década de los 70 de la mano de **Bill Mollison y David Holmgren**, en Australia. En aquella época de inicio del ecologismo y crisis energética la Permacultura se hizo popular. Bill se dedicó a viajar por el mundo para difundir la PC y se hizo muy conocido, mientras que David, más joven, se retiró para experimentar la técnica y el diseño en su finca de 1 Hectárea, “Melliodora”.

¿Y la Agricultura Regenerativa?

La AR surgió recientemente como evolución de la Permacultura y busca recuperar la fertilidad del suelo, secuestrar agua y carbono a escala global para revertir el cambio climático y empoderar al mismo tiempo al baserritarra frente a la agroindustria, ya que le capacita para producir sus propios fertilizantes e insumos de forma local, a bajo coste. Esto último está creciendo con fuerza. Hace poco estuve en un encuentro en Lekeitio al que asistimos del orden de 100 personas. Hace un año nos juntábamos apenas 9....

Sobre el Hardware Abierto y la comunidad Maker...

El HW abierto busca rellenar el hueco de soberanía tecnológica que la Permacultura contempla pero en el que nunca se ha profundizado demasiado. Aquí está tomando fuerza la impresión 3D, que permite imprimir las piezas o repuestos que se necesitan localmente, con materiales de origen vegetal y biodegradables. Esto encierra infinitas posibilidades. En mi caso tengo dos impresoras con las que busco satisfacer necesidades no cubiertas en el mundo rural, desde el punto de vista de herramientas, accesorios, etc. A modo de ejemplo, he participado recientemente en la realización colectiva de manos ortopédicas para niños mutilados, es el proyecto conocido como "Robohand".

Pero la Permacultura tendrá inconvenientes...

Es difícil que la PC pueda competir a nivel comercial ya que sigue un modelo de producción diferente, muy diverso pero difícil de mecanizar, donde se pone atención a la sostenibilidad frente a otras cosas. Así que para asegurar la viabilidad es conveniente desarrollar otras cosas que mantengan la rentabilidad, manteniendo también la coherencia de valores de la Permacultura. Una fórmula bastante común es el de la producción de cestas de verduras para grupos de consumo locales.

Resulta muy difícil llevar un diseño a la práctica ya que hay muchos detalles a tener en cuenta. Es un objetivo a alcanzar, y se debe llegar hasta donde se pueda, revisando y mejorando constantemente.

Hay pocos proyectos prácticos y son difíciles de imitar y/o escalar. En muchos casos los proyectos están demasiado orientados a la formación y no a la producción, y cuentan con muchos voluntarios que difuminan la carga de trabajo real. Tampoco se comparte demasiada información sobre el diseño del proyecto. Todo esto contribuye a que no se haya extendido con la fuerza que sería deseable.

ACERCA DE NUESTRO PROYECTO:

Es un proyecto familiar en el que normalmente trabajo solo y en ocasiones me ayuda la familia. Tuviimos que buscar mucho tiempo hasta dar con un terreno que estuviera a nuestro alcance, lo conseguimos en 2008. Tiene 1,6 hectáreas de las cuales 3000 m² son bosque, el resto pastizal que hemos ido adaptando poco a poco. Se encuentra en la zona de Azpirotz-Lekunberri. Tenemos un bosque comestible con unos 50 árboles, huertas con formas y técnicas diversas, como una con forma de lauburu. También una borda restaurada con técnicas de bioconstrucción. Seguimos añadiendo cosas, como una pequeña instalación hidráulica, invernaderos etc. Todo lo que hacemos lo documentamos para subirlo a Internet por si resulta de utilidad a otras personas, por ejemplo, una pequeña turbina hidráulica impresa en 3D, de diseño propio y que ya ha sido descargada por unas 25 personas en diferentes lugares del mundo.

No aceptamos voluntarios, queremos hacer las cosas con nuestras propias manos y así mostrar la carga real que conlleva un proyecto así. Experimentamos las técnicas de PC y contamos nuestra experiencia para inspirar a otras personas. Producimos a pequeña escala para nosotros y también un pequeño excedente para vender localmente. Intentamos "alpargatizar" la tecnología, aplicarla de la forma más simple posible, para resolver problemas comunes y desde la perspectiva de que se puedan utilizar en cualquier lugar.



Con el tiempo nos hemos planteado actividades de formación muy enfocadas a la práctica, así como asesoramiento para compra de terrenos o diseñar y establecer un sitio, también visitas guiadas, ya que la finca es como una especie de "parque temático" de Permacultura, entretenido y con bastante para ver. El objetivo es que más y más gente haga permacultura...■

Para saber más:

Web: www.permaculturaaralar.com

Email: permaculturaaralar@gmail.com

Twitter: @VictorJBarahona

También estamos en Facebook y Google +, buscar por "Permacultura Aralar"

Ikastola eta lurra bat eginik



Astigarragako ikastolan baratze proiektua martxan da dagoeneko.

Lurrak eta ikastolak bat egin dute aurtengo ikasturte honetan. Izan ere, eskola komunitate osoaren laguntzaz, baratze bat eraiki da ikastetxeko patio eremuan. Proiektu honen helburua haurrek landareen jaiotza eta prozesua berta-bertatik bizitzea litzateke. Haurrak gustura eta gogotsu aritu dira lanean, eta ereindako haziek jada eskaini dituzte lehen fruituak.

Ilusioa ernatu da

Aspaldian sentitzen genuen ikastolan baratze bat antolatzekeo beharra. Haurrak ingurumenera gerturatzeko baliagarria zela ikusten genuen, gisa honetara, hazia lurrean ernatu eta fruitura iritsi bitarteko prozesuaren lekuko izatea nahi baikenuen. Eta horretarako, zer egokiago beraiek protagonista eta zaintzaile bihurtzea baino?

Halaxe, ikastolako patioko obra eta eraldaketak hasi zirenean, lur hartu zuen gure buruetako egitasmoak. Patioko lur mutur bat baratzeari eskaini zitzaion, eta haurren erabilpenerako egokitzekeo lanak egin ziren.

Lurretik airean jarritako eremuetan

Haurrekin lan egiteko, modu eroso batez antolatu beharra zegoen, eta hala, zapalden bidez egitea erabaki genuen. Goiera jakin bat eman zitzaion, lurra zanpazten ibili gabe lanean jarduteko. Lau sail atondu ziren, eta aurtengo bederen, sail bakoitzaren ardura ziklo banak hartu du. Horrez gain, lur sail alboan hazitegi bat ere ezarri da estalki eta guzi. Haziak lur eremu honetan erein dira, eta behin landarera etorrira, birlandaketak egin dira dagozkion lur sailletara. Hornikuntzen artean, putzua, iturria eta txabola bat ere egokitu dira, azken hau, baratzekeo erreminta eta tresnak jaso ahal izateko.



Barazki, landare eta loreen erakustoki

Ikastolako baratze koxkor honetan landare mota ezberdinak erein eta landatu dira: ilar, baba, zerba, borraja, tomate, piper, berenjena, marrubi, leka, porru, babarrun, letxuez hornituak ikusi ditugu bertako lurrak. Naturak eskatu bezala, udazken partean neguko landareak, eta udaberrian berriz udaldiari dagozkionak. Horrez gain, txikienek ereindako tulipan biziak ere, kolorea eta bizipoza eskaini diote baratzeari.

Bakoitzetik banaka batzuk baino ez dira jarri, ez baitugu ahaztu behar baratzearen funtzio eta helburua didaktikoa dela. Hortaz, landarediaren aniztasuna bultzatu nahi dugu, haurrak landare ezberdinen berezitasunak ezagutzera eta natura maitatzera irits daitezzen.

Ildo honi jarraiki, datozen urteetarako aukera berriak ere ikusten dira. Goi ziklokoekin esaterako, sendabekarrak landatu eta ukenduak egitea aberasgarri izan litekeela pentsatzen da. Oraindik ez da abian jarri, baina proiektu berriak eta ilusioa hor daude.

Teknika biologikoetan oinarrituta

Urumea ibaiertzetik hartutako lurra, konposta, ura eta eguzkia ... horra hor ikastolako baratze landareen eguneroko elikagaia. Erabili diren hazi eta bitartekoak ere biologikoak izaten saiatu gara, horiek baitira naturatik gertuen daudenak.

Antolaketari dagokionez, errotazio sistema erabili da, eta datozen urteetarako ere halaxe jarraitzeko inten-

tziotan gara. Gauza jakina da landare jakin batzuk besteei mesede egiten dietela, eta errotazio sistema egoki bat erabiltzeak landarediari mesede egiten diola.

Hala, aurtan solanazeak (tomate, piper, berenjena...) landatu dituzten haur hezkuntzako ikasleek, neguko lekaleak ereingo dituzte udazken partean; hala nola: baba eta ilarra. Lehenengo ziklokoek kukurbitazeak (kalabaza, kalabazina, pepinoa ...) ereinak dituzte eta datorren udazkenari begira, neguko konposatuak landatzea egokituko zaie.

Lekaleak erein dituzten 2. zikloko ikasleek, berriz, brasiken txanda (aza, azalore, brokolia...) izango dute udazkenean, eta hirugarren ziklokoek, azkenik, udako konposatuetatik (txikori, eskarola ...) liliazeak ereitera pasako dira, hala nola, porrua, tipula eta baratxuria.

Eskola komunitate osoari zabalik

Baratzearen proiektua, eskola-komunitate osoari zabalduko proiektua dugu; guztion elkarlanaren erakustoki. Proiektu berri honen protagonistak haurrak ditugu, ez bairik gabe, baina ezin albo batean utz hainbat irakasle, guraso, nahiz aiton-amonak eskainitako laguntza. Aiton amonek beren biloben bidez emandako aholku eta jakituria bertan aplikatzen saiatuko gara, eta horrez gain, gurasoek oporraldietan eskainitako laguntza ere ezinbesteko ikusten dugu proiektuak aurrera egitea nahi badugu.

Milesker, beraz, laguntza eskainitako guztiei.

IKASTOLAKO BARATZE TALDEA

Baratz aldera begiratzen dudan bakoitzean

Baratz aldera begiratzen dudan bakoitzean,
patxara dakarkit bertatik datorren haize epel nahiz freskoak.
Baratz aldera begiratzen dudan bakoitzean,
haurrak ikusten ditut beren irakaslearekin zaintza lanetan.
Baratzera begiratzen dudan bakoitzean,
aiton-amonak ere hor ikusten ditut,
beren bilobei hazi edota lurrari buruzko aholkuak ematen,
eta udako egun sargoitsuetan...
orduan ere, gurasoak hortxe ditugu baratzearen zaintzale.
Baratz aldera begiratzen dudan bakoitzean,
Eskola-Komunitate osoa elkarlanean ikusten dut,
Eta horrek, nola ez,
Poza ematen du gure barruetan.

Ainhoa Fraile (Baratza taldeko kidea)



Also Danczen sy auff die manier der
Biscaynen

Emakumea euskal dantzan

*“Emakumeak ez du dantzatu izan,
gehienez dantzatua izan da”.*

Horrela dioten uste oker batek bide luzea egin du euskal dantzaren alorrean XX. Mendean. Aita Donostia ikertzaile eta gure musika eta dantzen biltzaile handiak are antzerako zerbaite esan zuen gai honi buruz ari zela:

“El hecho es que la mujer vasca no baila en el verdadero sentido que la palabra tiene entre nosotros. Asiste al baile y toma parte en él; pero como bien se ha dicho, es para "ser bailada", para que ante ella muestre el varón sus habilidades.” Aita Donostia.

Gaur egun badakigu hori ez dela egia. Emakumeek ere dantzatu izan dutela eta hainbat testigantza direla euskal dantzen historian horren berri ematen digutenak. Aita Donostiaren garai berean antzeko jardunean, kantu eta dantzen bilketan adibidez, aritu zen Resurreccion Maria de Azkuek Izturitzen jaso zuen ondokoa, adibidez:

*Behin batez joan ninduzun
Isturitzeko plazalat,
andre eder bat ikusi nuen
dantza-buruan zohala...*

Plazaren erdian, dantzatzen ari zen soka-dantza emakume batek gidatzen zuela kantatzen eta kontatzen digu abestiak. Madame Aulnoy bidaiariak Baiona eta Biarritzen ikusi zituen gizon-emakumeak dantzan 1690 inguruan: “Gizon eta emakume horiek jauziak, itzuliak eta entxetarako dantzatzen zituzten”. Iztuetak aipatzen digu 1806an Azpeitiko plazan Pontxera deitzen zioten neska gazteak dantzatu zuela begira zeuden guztiak liluratuz. Horrelako aipuak ugariak dira XVIII eta XIX. mendeetako dokumentazioan.

Dantzatu du emakumeak, bai horixe. Debeku eta oztopo ugari jasan behar izan baditu ere, dantzatu du emakumeak. Izan ere, XVIII. mendetik aurrera (eta ziur aski aurretik ere, baina hortik aurrera oraindik gordinago) elizgizon eta alkate, gotzain eta gobernadore, amorruez eta temati aritu dira plazan dantzari ziren emakumeen jarduna debekatu eta kanporatu nahirik. Hori bai dela egia. Dantzatu du emakumeak, baina makina bat debeku, oztopo, kanporatze, zigor eta eraso sufrituta.

XVIII. eta XIX. mendeetako elizgizonen begietan, dantza bera ez omen zen kontu larria gizon-emakumeak nahasten ez baziren. Gizonak dantzan aritzen ziren ez zuen inork zalantzan jartzen, eta beraz, dantzara emakumeak sartzen baziren, hor hasten ziren gauzak okertzen. Bartolome Madariaga fraideak 1816an idatzitakoak argi erakusten dute zernola asaldatzen zituen elizgizonak emakumeak dantza parte hartzeak. Neskak “bularrak berariaz jasota, edo armatuta, edo paparra agerian” agertzen zirela dantzara eta “Lizunkiaren sua eta kea” zela plazako dantzaldietan ikusten zena. Horren konponbidea garbi ikusten zuen zenbaitek, emakumeak plazan dantzatzea debekatu eta konponduta auzia. Eta ia-ia lortu zuten beren nahia.

XX. mendean, ustez genero berdintasunaren bidean urrats sendoak eman diren garaian, dantza alorrean atzerapauso nabarmenak gertatu izan dira. Eta zenbaitetan, berdintasunaren bidean urratsak ziruditenak,

epe luzera kate-motz gertatu dira. XX. mendeko lehen hamarkadetan, herri guztietan antolatzen ziren ezpata-dantzari taldeen ondoan poxpolinen taldeak antolatzeari ekin zitzaion neskak dantzan jartzeko asmoz. Gaur egundik begiraturata konturatzen gara urrats horrekin hesi handi bat eraiki zela mutil eta nesken artean, bakoitzak egin zitzakeen dantza eta jantzi zitzakeen arropak generoaren arabera bereiziz.



Korpus dantzak Oñatin 1969 urtean. Argazkia: Jesus Maria Arzuaga - Guregipuzkoa.net / CC-BY-SA

XXI. mende honen hastapenetan, genero markarik gabe dantzariekin amesten dugu. Dantzariak izan daitezela ikusiak eta baloratuak beraien dantzarako gaitasun eta trebeziengatik, eta ez ditzagun dantza batzuetarako edo besteetarako soilik bideratu jaiotzezko sexu hutsagatik. Izango dira noski bikote jokoan oinarritu eta bikote jokoan gailentzen diren dantzak, eta horietan akaso neska-mutilek nork bere paperean aurki dezake bere tokia. Baina badakigu gure gizartean bikote motak ugari egin direla eta ez dela beti sexu bakoitzeko, ezta sexu marka nabarmeneko kideen artean osatzen, eta gure dantzetan erreallitate horiek normaltasunez onartu eta sustatu beharko genituzke. Dantza maite dugulako, bereziki euskal dantza tradizionala gure komunitatean belau-naldiz belau-naldi transmititu eta ondu delako, eta belau-naldi berrientzat ere tresna erabilgarria, erakargarria eta indartsua izatea opa diogulako.

Ari gara poliki-poliki gure historia ezagutzen, eta ari gara, emakumeei plazan zor diegun eskubidea itzularazteko ahaleginetan. Eskubidea delako, eta ez historikoa soilik, gaurko eta biharko ere badelako. Izan ere, historian inoiz dantzatu ez balu ere ez luke horrek justifikatuko orain ez dantzatzea. Alkate izateko, zapagileen gremioko kide izateko edo forjari izateko gizonezkoa izatea nahitaezko baldintza izan da luzaroan, baina horiek bukatu dira. Dantza egiteko dantzan egiten jakitea da beharrezkoa, ez gizonezko jaiotzea. Historiaz gezurra esan zigutelako salatu dugu hemen, baina gaur eta bihar eskubidea dutelako dantzatuko dute emakumeek, gizonekin (animatzen diren apurrekin) batera.

OIER ARAOLAZA

IRUÑEKO ALDE ZAHARREKO KONPARTSA Astigarragan

Txirriskla txistu taldearen eskuk eta Astigarragako Udalaren laguntzarekin, apirilaren 5ean Iruñeko Alde Zaharreko Konpartsa izan genuen herrian, bertako erraldoi eta txistulariekin batera.

Iruñeko Alde Zaharreko Konpartsa osatzen dute lau erraldoi (Lurra, Sua, Ura eta Aire), lau kilikik (Napoleon, Payaso, Pamplonica eta Demonio), eta nola ez, gaitari edo dultzainero talde batek.

Nahiz eta Iruñeko Alde Zaharreko Konpartsa hau 2001. urtean sortua izan, gero eta saio edo ekitaldi gehiago ditu Euskal Herrian zehar, eta konpartsa osatzen duten partaideen adina, ilusioa eta gogoia ikusirik, etorkizun oparoa izango duela esan genezake.

Antolatutako ekitaldi honen bitartez, Txirriskla txistu taldeak hiru helburu nagusi bete nahi izan ditu:

Lehena, Nafarroako konpartsa edo talde batekin harremanak sustatzea, gure hizkuntza, kultura eta herria indartzeko asmoz (guk ere jaso dugu Iruñera joateko gonbidapena).

Bigarrena, musika eskolako ikasle diren txistulari eta atabalariekin talde bakar, handi eta eder bat osatzea, herrian jo, elkar ezagutu, egun bikaina pasa eta, hala nahi izanez gero, etorkizun hurbil edo urrunean Txirriskla txistu taldeko partaide izateko aukera eskaini eta landuz.

Eta azkenik, hirugarrena, herriari saio eder bat eskaini eta gure herriko txikiei, hain gustuko dituzten erraldoi eta buruhandiekin, gozatu edo sufritzeko aukera ematea.

Hiru helburuak beteta, eta eguraldia lagun, pozik geratu ginen Iruñeko Alde Zaharreko Konpartsaekin batera eginiko ekitaldiarekin, eta dagoeneko, esperientzia errepikatzeko asmotan hurrengo urterako konpartsa berrien bila gabiltza, denon gozamenerako!

TXIRRISKLA TXISTU TALDEA



J 2014

A

I

A

K



Astigarragan

Pastain argazkiak

Uztailaren 24a, osteguna

- 10:30** TOKA LEHIAKETA Norberto Almandoz plazan.
- 12:00** TXUPINAZO TXIKIA, buruhandi eta erraldoiak.
- 16:00** UR JOKOAK eta txokolate jatea Foru plazan.
- 19:00** PREGOIA ETA TXUPINAZOA.
- 19:30** AKELARREAREN KALEJIRA.
- 20:00** Gazte Asanbladaren TXOSNAREN irekiera.
- 23:00** DISKOTEKA Joseba Barandiaran plazan.
- 23:00** MUSIKA TALDEAK txosnaren karpan.



Uztailaren 25a, ostirala

- 07:00** AULKI JOKOA eta txokolate jatea Foru plazan.
- 09:30** TXISTULARIEN DIANA.
- 10:00** Haurrentzako Txirringularitza Proba.
- 11:00** MEZA NAGUSIA Done Jakue ermitan.
- 12:00** Udaltzatzen SOKA-DANTZA.
- 13:00** Musika eta animazio ibiltaria Foru plazan.
- 18:00** Astigar taldearen DANTZA-ERAKUSTALDIA.
- 18:30** PERKUTSIO ETA DANTZA AFRIKARRA.
- 19:30** Sta. Ana jairako idi-demako IDIEN PISAKETA.
- 20:00** TXARANGA eta SOKAMUTURRA TXIKIA.
- 20:00** KONTZENTRAZIOA J. Barandiaran plazan.
- 23:00** BERBENA J. Barandiaran plazan.
- 23:00** MUSIKA TALDEAK txosnaren karpan.
- 23:45** LARRAIN-DANTZA HERRIKOIA.



Uztailaren 26a, larunbata

- 09:30** ZUBIETAKO JOALDUNAK.
- 09:30** ESTANGA TRIKITILARIAK.
- 10:00** 3X3 SASKIBALOI TXAPELKETA kiroldegian.
- 11:30** Euskal Herriko **GAZTAGILEAK: ARTESAUEN ERAKUSKETA** eta produktuen salmenta.
- 11:30** **SAGARDO DASTAKETA** Foru plazan.
- 11:30** **IDI DEMAK:**
Errenteriako **MATXAIN**, Bermeoko **Rafael ALEGRIA** eta Ezkio-ltsasoko **IGELDO** idijabeen idiak elkarren aurka, 1.700 kiloko harriaz, Foru plazan.
- 12:00** **BERTSOLARIAK:**
Aitor MENDILUZE eta **Unai AGIRRE**.
- 13:45** Aldarrikapen **KONTZENTRAZIOA** Foru plazan.
- 14:00** **GAZTE KALEJIRA** dultzaineroekin.
- 14:30** **BAZKARIAK:**
txosnako karpan eta Sta. Ana egunekoa.
- 17:00** **TXARANGA.**
- 18:00** **HERRI KIROL JAIALDIA** Foru plazan:
* **GAZTEEN ARTEKO** herri kirolen probak
* Herriko **AUZOEN ARTEKO** herri kirolen norgehiagoka **BASOGINTZAZ**.
- 18:00** **BINGOA** Galtzaur elkartean.
- 19:30** **TRIKITILARIEKIN ERROMERIA.**
- 20:00** **BERBENA** Joseba Barandiaran plazan.
- 20:00** **HEGALUZE PINTXOAK** J. Barandiaran plazan.
- 22:30** **TINBAL ETA SU IKUSKIZUNA** Foru plazan.
- 23:30** **KONTZERTUA** Joseba Barandiaran plazan.
- 01:00** **MUSIKA TALDEAK** txosnaren karpan.



Pastain argazkiak

Uztailaren 27a, igandea

07:00 **BARRENE** pilotalekuan.

10:30 **IGEL TXAPELKETA**
Norberto Almandoz plazan.

11:00 **PATATA-TORTILLA LEHIAKETA**
Norberto Almandoz plazan.

12:30 **ERRALDOIEN KALEJIRA** kale nagusia eta
Galtzaur kalearen elkargunetik abiatuta.

13:45 **KATALUNIAKO DANTZA-TALDEA**
Foru plazan.

14:00 **Bazkari herrikoia** Foru plazan.

16:30 **PALA ERAKUSTALDIA, PALA TXAPEL-
KETA ETA ESKU PILOTA JAIALDIA.**

18:00 **IKUSKIZUNA** Joseba Barandiaran plazan.

19:30 **MUSIKA** Joseba Barandiaran plazan.

22:30 **SU IKUSKIZUNA** Foru plazatik abiatuta.

23:30 **LABURREN LEHIAKETA** txosnan.



Ezker hanka aurrean, birikak arnas bete, txilibituaren soinua, eta ba! Pausoa bata bestearen atzek, zor-tziak batera, luzea ala motza, azkarra ala geldoa, baina denak batera. Plaza bat. Alde batek bestera. Hamabost minutu, hoge minutu. Arnasa ibiliz, izerdia eginez, zuzen mantenduz, gorputza sartuz. Zor-tzi emakume ran, baina hamabi taldean.

Mirari Lizaso, Karmele Irastorza, Araitz Elgeta, Garazi Moreno, Eneritz Arbelaitz, Onintza Mitxelena, Onintza Azpirotz oiartzuarrak dira, Iratxe Lopetegi eta Marina Del Río Lezokoak eta Ane Oiartzun, Olatz Mitxelena eta Eneritz Gartzia Asgarragakoak. Azken hau, Egoitz Iturbe urretxuarrekin batera aritzen da agintari eta gidari lanetan.



Ergobitik Emarrira

Giza probarekiko afizioa orain urte batzuk berpiztu zen Astigarragan. Ergobin, batetik, mutil eta nesken arteko desafioa egin zuten 2012ko festetan. Urte berean, ekainean, Astigarragaren desanexioaren 25. urteurrenaren aitzakian 25 gazte aritu ziren 2.000 kilogramoko harria mugitzen. Eta hala, bai Ergobin hasi zirenak eta baita Goldearekin hasi zirenak Ergobi taldean elkartu ziren, eta plaza gehiago egiteko aukera suertatu zitzaizen. Aukera izan, eta eutsi! Ezetz ezin esana sortu zen taldean, eta giro ona medio jarraitzea erabaki zuten, baina ez betirako. Tiraka-tiraka, plaza bakarra zena bi plaza eta txapelketa bihurtu zen. Hala, Gipuzkoako Giza Proba txapelketan parte hartu zuten iaz Ergobiko neskek, orain artean egin den emakume arteko lehenengo txapelketa ofizialean. Horren ondoren, ordea, taldekide gehienek jarraitu nahi ez eta taldea, harri tirari dagokionean, hortxe geratu zen.

Baina ilusioa ez zen amatatu. Ergobi taldeko bik oraindik bazuten gogoia harriarekin jarraitzeko, baina Ergobikoek jarraitu nahi ez zutela eta inguruko lagunengana jo zuten. Segituan jaso zuten lehia batean parte hartzeko deia, eta taldea erdi osatuta baiezkoa esan zuten. Halaxe, 2013ko urrian sortu zen talde berria, izenik gabeko taldea. Izen asko eta asko bota bazituzten ere, Xabier Amuriza bertsolariak asmatu zuen denen gustukoarekin: Emarri, emakume eta harri. Laburra, sendoa, espresiboa.

Bide horretantxe daude orain, ikasiz eta lan eginez, gozatuz, izerdituz, dibertituz, sufrituduz, barre eginez. Plazaz plaza, desafioz desafio. Agenda betea dute, eta ari dira hauek ere beren lekutxoak egiten Herri Kirolen mundu honetan. Egin dezatela, eta jarrai dezatela! Esfortzua eta grina talde giro onaz bustita baino hoberik ez dago eta!

EMARRI Taldea

Sagardoetxea,

urrezko Bikain ziurtagiria duen Euskal Herriko museo bakarra

Sagardun Partzuergoa 2003. urtean sortu zen eta Astigarragako Udalak, 14 sagardogileek eta herriko 7 talde kulturelek osatzen duten entitate publiko-pribatua da.

Sagardun Partzuergoaren jarduera honakoa da: **Sagardoetxean** sagardoaren ondarea zabaltzea eta mantentzea (bisita gidatuak, dastaketa bereziak, kultur emanaldiak, familientzako tailerrak, erakusketak, sagardoan berezituriko dokumentazio zentroa, etab.); "Sagardo Berriaren Eguna", "Santa Ana" eta "Sagar Uzta" bezalako **ekitaldiak** antolatzea; **esperientzia turistikoa** ezberdinak sustatzea (probaketak, Santiagomendiko Sagardo Bidea, sagardoa eta gazta, etab.); "Sagardoaren Lurraldea Boletina" eta "Sagardoaren Hiztegia" bezalako **argitalpenak burutzea**; beste eskualdeekin elkarlanak garatzea "Sagardoaren Lurraldea" markapean.



Sagardoetxeako estatistikak agerian jartzen dituzten moduan, 2013an museoan egin genituen bisita gidatuen %56 gaztelaniaz izan ziren, %27 euskaraz, %12 ingelesez eta %5 frantsesez. Beraz, gure eginkizuna **bertakoei eta kanpotik etortzen diren bisitariei gure kultura eta usadioak zabaltzea** da.

Sagardoetxean gure eguneroko jarduera euskaraz egiten dugu baina kanpora begira gauzatzen dugun komunikazioan hizkuntza ezberdinen erabilera ikusita, beharrezkoa iruditu zitzaigun kanpo ebaluazio batek **Sagardoetxean egiten dugun euskararen erabilera maila neurtzea** eta, horretarako, **Bikain ziurtagiriaren** eskaera egin genuen Eusko Jaurlaritzan.

Bikain ziurtagiria, Euskalit Kalitaterako Euskal Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ematen dute eta enpresa nahiz erakunde batean euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen ditu. Bikain ziurtagiriak hiru maila dauzka eta kolore bana dute: beltza, zilarra eta urrea.

Hala, talde ebaluatzailearen bisita jaso genuen Sagardoetxean eta ebaluazioaren ostean **Bikain Ziurtagiriaren Goi Mailako agiria** eskuratu genuen. Horri esker, **urrezko Bikain ziurtagiria duen Euskadiko museoa bakarra eta maila hori eskuratzen duen lehendabiziko museoa** da Sagardoetxea.

Hemendik aurrera, ebaluaketatik ondorioztatutako proposamen eta zer hobetuak aztertu eta, ahal den neurrian, epe luze zein ertain eta motzerako helburuak ezarriko ditugu.

SAGARDOETXEA MUSEOA

SAGARRONDOEN

LOREETAN

Zelaian etzanda naga, eguzkiaren laztan epeletan, hodeiek zeruan marrazten dituzten irudiei begira. Enarak ziztuan daaz haize gozaren hegaletan, jolasean. Sagarrondoak ere emeki ari dira dilindan, loretan. Dena arnastu dut: zelaia eta eguzki, hodei eta haize, sagarrondo eta lore. Eta biziberritu, ametsetan, elkarrekin izan ginen lehenengo egun hura.

Herriko neska-mutikoak bagatoz belazean korrika. Hurrun ditugu kezka eta nekeak, irrikaz oihuka. Biok bakarrik gaude, sagarrondoaren azpian. Elurrezko maluta dirudien lore bat erori da, taupada bakoitzarekin hurbilduz zure besoetara, eta aurpegia argitu zaizu. Atzeman dut egunsentirik ederrena; zure begien irria, izarren ispilu gardena. Beti zurea.

Maldan behera ikusi zaitut, udaberria bazenekar bezala, loretan. Ite ilun luzea uhinetan barreiatuz, saineke xuria garputzean, kiribilka. Hasperenka. Nire ondoan etzan zara. Marrubizko espainekin kilikatu nauzu. Pimpilinpauzak hegan dabilzkit garputzean. Ilunabarrean, arizemugan eguzkiak itsas azalean kulunkan utzitako printzak ikusi ditut, zure azalean dantzan.

Gau iluna heldu da, mantu beltzak inguratu gaitu. Izu-ikara nagusitu da nigan. Ez ote zauden nire ondoan. Lore izateari utzi eta goi zeruan ikusten diren izar urxo horietakoa bilakatu ote zaren. Malkoak irristan, izarretan irria marraztu didesula kenturatu naiz; Ilargi Amandrea, gar izoztuen dirdai gisa, dut zaindari.

Ukitu gabe laztandu nauzu. Eta esan didazu.

Sagaratu sagarrondoan loreetan haize leunaren dantza entzuten duzunetan, ni nauzula, zenbat maite zaitudan xuxurlatuz.

Besarkada batez estutu zaitut.

Urtzi Leonet Santa Cruz



Porlanezko mamuaren iragana: ERGOBIAKO ZENTRAL TERMIKOA

JOSU Tellabide - ASIER Agirresarobe

Ergobiako zubiaren ondoan, Urumeari begira urteak daramatzan industria-eraikina ekarri dugu aurten lerrootara. Zaharrenek akaso gogoan izango duzue zer den porlanezko mamu itzel hori, eta zertarako, nork eta noiz eraiki zuen; ondotik sarritan pasako zineten agian eta noizbait erreparatuko zenioten; edo bestela entzuna izango duzue zer izan zen; hala ez baldin bada, edota besterik gabe zertxobait jakin nahi baduzue eraikin misterioitsu horren gainean, hurrengo lerroak irakur ditzazuen gonbidatzen zaituztegu.

Eraikinaren ezaugarri arkitektonikoak:

Mailakatutako hiru gorputzek osatzen dute zentralaren eraikina. Hormigoi armatuan eraikita eta erabilera berriak barne hartzeko barruko hainbat aldaketarekin. Jatorrizko erabilera argiztapena oso urria da: ardatz bertikaleko baoak ardatz horizontalekoekiko oso ezberdinak dira.

Bolumentria, zuloen horizontaletako eta bertikaletako jokoak, gorputz zabalenaren goranzko bulkada geldiaraziz inposta lerroak, eta oro har, proportzioaren zentzua nahiz eraikitakoari ahalmen adierazkorra nabarmentzeko apainduratik aldentzeak, zuzenean garamatzate kultura arkitektoniko mugimendu modernoaren ildoetara asko hurbiltzen den kultura arkitektonikora.



Zentral termikoa eraikitzen, 1930ean



Zentrala inauguratu berritan, 1934an

1900 urtean, Rezola lantegia Añorga Txikitik Añorgara pasa eta zementu naturalaren ordeztu Portland zementua ekoizteari ekin ziotenean, argindarra Leitzarango *Hidroelectrica Ibérica* zentraletik ekartzen hasi ziren. Urte batzuk geroago, 1909-10 urteetan, Rezolak bere zentral hidroelektrikoa muntatu zuen Urumearen ertzean, baina Goizuetako lurretan.


Lehen hamarkadetan testuinguru orokorra enpresaren aldekoa izan zen, batez ere Lehen Mundu Gerrarekin (1914/1918). Edonola ere, Rezolatarrek asmatu zuten garaian garaiko beharretara egokitzen. Hala nola, 1916an bapore baten erosketarekin garraio arazoak ekidin zituzten, merkatuak eskatzen zituen produktu berriak eguneratzean eta fabrikatzeko baliabideetan. 1929an enpresa Cementos Rezola izenarekin sozietate anonimo bilakatu eta bere kapitala handitu zuen unean, berrikuntza ugari abian jartzeari ekin zioten. Hala, 1931n ekoizpenak jauzi garrantzitsua eman zuen Lepol labe horizontala martxan jartzearekin batera. **Horrekin batera, Ergobian, ikatzarekin lan egingo zuen zentral termikoa inauguratu zuten.** Hormigoizko poste zilindrikoetatik barrena Goizuetatik zetorren linean bertan muntatu zuten zentrala, baina frankismoa tarteko ez zuen errendimendu onik izan. Bigarren Mundu Gerra amaitzearekin batera erregimen frankistaren isolamendu garaia etorri zen. Horrek, besteak beste, urte batzuetan ikatzaren eskasia eta Rezolak autarkian produzitu behar izatea ekarri zuen. Ergobiko zentralak, gainera, ikatzaren eskasiarekin batera, haren kalitate txarragatik eta instalazioa gain-dimentsionatua egoteak hainbat arazo izan zituen.

Edonola ere, 50eko hamarkadaren amaiera arte argindarra sortzen jarraitu zuen. Behin zementu-fabrikarekin lotutako jarduera hori amaituta, urte batzuk geldirik egon eta gero, 1967 urte aldera, Orona galdaragintza enpresa hartu zuen. Añorgako lantegian galdaragintzan aritzen zirenak gorabeherak izan zituzten zuzendaritzarekin, eta azkenean, Orona lantegiaren hazia edo hasiera izango zen enpresa zentral zaharrean martxan jartzea adostu zuten. Langile horien artean zegoen Antxon Aiestaran añorgatarra, Donostiako orfeoiaren zuzendaria, auto istripuz hil zena. 1989an pasa zen Orona Astigarragatik egun dagoen tokira, Hernaniko Lastaola poligonora. Hutsik geratu ondoren bolada batez, Hormigones Easo enpresa kokatu zen bertan. Horiek alde egin zutenetik, hutsik eta utzita dago, eta orain, autobide berriak eraiki eta tren lasterra datorrenean ere onik aterako dela dirudi. ■




4 kontenedore / Atez ate konparaketa

2012ko apiriletik 2013ko martxora



2013ko apiriletik 2014ko martxora



Atez ateko hondakin bilteta sistema martxan egon den urtebete honetan Astigarragak bilteta selektiboaren datua %29k %80ra eraman du.

Herritar bakoitzak egin duen esfortzu txikiari esker, Astigarragan hondakinen biltetari iraulia eman diogu eta hau guza, herritar guzek izan duten jarrera eredugarriari esker izan da.

Atez atekoa martxan jarri aurretik, Astigarraga ez zen hondakinen %30 gaika jasotzera iristen eta gaur, 2014ko apirilaren 2an, esan dezakegu, azken urtebete honetan ez dugula hilabeterik egin %80ko gaitzako biltetaren azpitik. Beraz, bene-benetako iraulia urtebetean lortutakoa.

Gainera, urtebetean jazotakoaz zerbait nabarmendu nahiko bagenu, normaltasuna izan da. Urte baten ostean, perspektiba erabat aldatu da eta egunerokoak erakutsi digu, gainera zetozkigun balizko zama, arazo eta gaitzak, gezur hutsak direla, eta horren erakusle, lortutako datu bikainak. Lasaitasun eta harrotasun osoz, ozen esan dezakegu, Astigarragan, ongi baino hobeto ari garela eta urte honetan, azken hamarkadan, ingurugiro mailan astigarrarek eman duten urrats garrantzitsuenetakoa astigarrarek euren hondakinak sailkatzen egin duten esfortzu txiki bezain ausartari esker izan dela.

Lehen grafikoan bilketa selektiboak Astigarragan izan duen bilakaera ikus dezakegu, azken bi urteetan martxan egon diren hondakinak biltzeko bi sistemekin. 4 edukiontzien sistemarekin Astigarragak bere hondakinak %29,16 jasotzen zituen gaika eta atez atekoarekin, %82,95 jaso ditu. Argi ikus dezakegu diferentzia. Hilero hilero eman den egoera da, lehen hilabetetik hasita azkenera bitarte.


Epe honetan hondakinaren karakterizazioak ere egin ditu Udalak, 4 ontzi arinenak eta beste bat, oraindik martxan dagoena eta datuak izan bezain laster jakinaraziko dena, errefusarena. Ontzi arinen frakzioa da herritarrentzat bereizten zailena dena, eta karakterizazioek erakutsi digute, astigartarrek ez dutela soilik asko bereizten, baizik eta oso ondo bereizten dituztela hondakinak. Lau karakterizazio hauetan, inpropioen (ontzi arin bezala bota, baina ontzi arinak ez diren hondakinak) batuz bestekoa %4,28koa izan da. Hau da, astigartarrek astelehen eta ostegunetan kubo horian ateratzen dituzten hondakin guztien %4,28 soilik ez dira ontzi arinak. Datu oso ona da eta hau ere, irauliaren beste argazki esanguratsua.

Datuak eskuartean ditugula, argi geratzen da egindako apustua egokiena zela. Erakusten ari gara gure hondakinaren kudeaketa arduratsua eginda, ez direla beharrezkoak erraustegia bezalako azpiegiturak. Hondakinaren kudeaketa egoki egingo da, herritarrei horretarako bideak eta baliabideak eskainiz, bestela, ezinezkoa izango da. Gaur egun Gipuzkoan bi sistemen arteko eztabaida antzua ematen da, biek ematen dituzten emaitzak oso bestelakoak direlako.

Udalak urtebete honen normaltasuna eta herritarren jarrera eredugarria azpimarratu nahi du.

BILKETA SISTEMAREN DEFIZITA:

Hondakin tasaren bilakaera vs. Defizitaren bilakaera



Bilketa zerbitzuaren defizitari dagokionez, ikus dezakegu 2013an, bi sistemekin, hondakin bilketa zerbitzuaren defizita %42koa izan zela. 2012an, lau edukiontzirekin, bilketa zerbitzuaren defizita %35koa izan zen. Zenbaki paretsu samarrak dira, eta 2013an, trantsizio urtea izanda, kostu gehigarriak izan ditugu lehenengo 3 hilabeteetan hondakinaren %70 zuzenean zabortegira bideratzeagatik ordaindutakoarengatik. 2014 urtea izango da atez atekoarekin osorik egingo dugun lehenengo ekitaldi ekonomikoa eta, 9 hilabete hauetako zenbakiak estrapolatuz gero, defizita %36 izango dela aurreikusten dugu; beraz, atez ateko sistema ez da garestiagoa.

Iraganean, hurrengo grafikoan ikusi dezakegunez, defizita murriztearen zama herritarren gain ezarri da tasak nabarmenki igota. Atez atekoarekin, gaikako bilketako emaitzak ikaragarri hobetu ditugu, kalitateko 5 lanpostu berri sortu ditugu eta tasak mantenduaz zerbitzuaren defizitari eutsi diogu.

BI ARREBA:

BI ARTISTARI BURUZKO BERTSO-MUSIKA EMANALDIA

Andoni Egaña bertsolari zarauzitarra eta Xabier Lizaso pianista oriotarra izan genituen beraiek sortutako musika bertso saioa, "Bi arreba" ikuskizuna, eskaintzen, Astigarragako Kultur etxean.

Chopin pianista eta musikagilea eta Xenpelar bertsolariaren antzekotasunetan oinarrituta, musika, bertsoak, istorioak eta inprobisazioa uzartzen dituen saioa izan zen. Garai berdintsukoak ziren Xenpelar bertsolari errenteriarra (1835-1869) eta Chopin musikari varsoviarra (1810-1849).

Hainbat antzekotasun dituzten arren (biak artistak ziren, sortzaileak eta berritzaileak, biek bere hizkuntza propioa zuten, biak bere herriarekin maiteminduak zeuden...), Egaña eta Lizaso

batean oinarritu dira: biak gaitzak jota egon ziren azken hilabete haietan eta euren arrebak izan zituzten biek zaintzaile lanetan. Izan ere, Chopinen arreba Varsoviatik Parisera joan zen anaia zaintzera; Xenpelar, berriz, ez zuen inork zaindu nahi, gaitza oso kutsakorra zelako, eta arreba ere handik gutxira hil zen gaitzak jota. Azken hilabete horietan oinarritzen da izena, "Bi arreba".

Ikuskizunaren bizkarrezurra kontakizun bat da, Chopinen kontuak, Xenpelarrenak... Lizasok pianoz lagundu zituen Egañak kantatuko Xenpelarren bertsoak. Ordu eta erdiko saioan Andonik berak sortutako beste bertso batzuk tartekatu zituen, horien artean bere arrebari jarritakoak, bera baino hamasei urte gazteago denari. Anekdota asko kontatu zituzten bai Xenpelarri buruz, bai Chopini buruz.



Emanaldiaren bukaeran **Andoni Egañak Astigarragako herriari eskainitako hiru bertso** hauek kantatu zituen.

Sarri zer egin ez da jakiten
igande arratsaldetan,
nabarmenago da Errealak
jokatzen ez duenetan.
Ikuskizun bat sortuak Chopin
eta Xenpelarren bueltan,
hona helburu oso argia
ekarri dugu benetan,
urrukoa gertu sentu
eta gertukoa bertan.

Xenpelar ez zen Asgarragan
sentuko atzerrian,
hemengo kanpai-hotsak entzuten
ziren bere baserrian.
Nahiz holakorik ez zen gertatzen
Parisen ez Varsobian,
Xabierrek ze indar eskutan
ta ze arte eztarrian!
Chopinek beste txinparta bat du
sagardoaren herrian.

Xenpelar bultza nahi genuen guk
berezko tokiaz hara,
ta Chopin berriz goxo ekarri
honuntza geure plazara ...
Eskertzen dira zuen arreta
ta zuen esku zartada,
ordu ta erdi ondo luzea
tximistan gisan pasa da,
hurrengorarte, ondo bizi ta
mila esker Asgarraga.

MIEL JOXE ASTARBE
naiz.info/eu/agenda

TXIRRINDULARI TALDEA



• **Gazte talde bat zarete, asko elkartu al zarete antolaketa lanetan aritzeko?**

- Astero elkartzen garenak, 6-7 izaten gara. Hala ere, zerbait antolatzen dugunean jende gehiago egoten da prest lana egiteko. Maiatzaren 31 eta ekainaren 1ean bizikletaren asteburua "txirrindagan" antolatu dugu eta bertan herriko talde ezberdinen laguntza jaso dugu. Taldea bitan dugu banatua, batzuk mountain biken ibiltzen dira eta besteak errepideko bizikletaz. Orain arte gehienak mutilak gara, baina neskak ere animatzea nahiko genuke.

• **Txirringarekin lotuta dauden jarduerak prestatu dituzue, noiztik zabiltzate horretan?**

- 2013 urte hasieran biltzen hasi ginen, urte bukaerarako taldeko arropa egin genuen eta orain asko gara Astigarragako trajearekin ibiltzen garenak. Honez gain, urte bukaeran umeekin irteerak antolatu genituen eta ume mordoxka bat etortzen ziren. Gure asmoa da urtean zehar irteera gehiago antolatzea. Orain asteburu oso bat antolatu dugu gauza ezberdinekin, bizikletaren modalitate ezberdinekin eta adin guztietako jendearentzat.

• **Zein adineko haur edo gaztek hartzen dute parte ekintza horietan?**

- Umeen irteeretan, ez nago seguru baino uste dut 4 urtetatik 10 urtetara etortzen direla gutxi gora behera. Beste ekintzetan, ez dugu adin limiterik jartzen ez behetik ez goitik.

• **Nolatan aukeratu zenuten txirringa?**

- Astigarragan kirol askok taldeak dituzte eta bizi-

kletan ibiltzen ginenok, beste herrietan apuntatu behar izaten genuen edo beste herriko taldeen arropaz ibiltzen ginen. Hori ikusita, gutako batzuk hitz egiten hasi ginen ondo egongo zela herrian talde bat sortzea. Orain lasterketa ezberdinetan gure arroparekin Astigarraga izena ere azaltzen da.

• **Orain artean zein ekintza edo jarduera egin dituzue?**

- Orain arte umeen irteerak egin ditugu, baita San Inuxente krosa ere. Orain txirrindagan antolatzen ari gara, asteburu oso bat. Gure asmoa, lehen Zipotzak egiten zuen trabesia eta Olosotarrek antolatzen zuten Santio mendiko kronoeskalada berreskuratzea da.

• **Parte hartzea handia izan al da orain arte eratuakoa?**

- Umeen irteeratan 20-30 ume inguru etortzen ziren, gure ustez nahiko ondo hasi gara. Eta San Inuxente krosetan parte hartzaile kopuruarekin ere pozik geratu ginen.

• **Zein izango litzateke zuen helburua hemendik aurrera?**

- Hemendik aurrera herrian bizikleta gehiago ikustea da gure nahia. Baita bizikletarekin zer ikusia duten gauza ezberdinak antolatzen jarraitzea ere. Polita izango litzake urte batzuk barru Astigarragako txirrindulari profesional bat izatea Olaso eta Blazquez anaien pausuak jarraituz eta hobetuz.

Kirol polita ondo pasatzeko ... lanean jarraitu eta aurrera neska-mutilak!

Roxa Zabalegi

JOXE GOÑI

Gurutzetako sagardogilea

Joxe Goñi 1928ko abuztuan jaio zen Ergobiko Gurutzeta baserrian. Ama zuen Gurutzetako eta ohitura zaharrei jarraituz ez zen bera etxeko martxa eramateko ardura zuena. Aitak Pasaiaiko Luzuriagan egiten zuen lan eta 4 urte zituela Herrerara joan zen familia bizitzera. Baina tarte horretan Gerra Zibila piztu zen eta Gurutzetako planak erabat aldatu ziren. Joxek 12 urte zituela itzuli zen familia Gurutzetara eta etxeko martxa bere gain hartu.

Baserriko lanak ez zituen gustuko baina sagardogintza odolean zeraman.

Galdera: Nola gogoratzen duzu sagardotegiko martxa zure haurtzaroan?

Joxe: Gauzak oso bestelakoak ziren.... Igandeko meza nagusiaren ostean alguazilak bandoa jotzen zuen halako sagardotegik kanilla zabaldu duela esanez. Upelari kanilla jartzen zitzaion eta jendeak txarrok edo basoka edaten zuen, tortilla edo lapa mokadu bat eginez. Bazen jendea 7-8 ordu egiten zituena bertan, bazkalostean lo kuluxka mahai gainean egin eta segi ilunabarra arte.

Upelekoa amaitzen zenean beste sagardotegi batek zabaltzen zuen kanilla, ez zen komeni bat baino gehiago batera zabaltzea eta horrela negu guztian batetik besterako ibilbidea osatzen zen. Gainera baserri bakoitzak etxeko sagarrekin sagardoa egiten zuen eta egunerorako ez zen falta.

Galdera: Baina kanilla garaia amaitu zenean, zer?

Joxe: Ohiturak aldatzen joan ziren, sagardo gehiago egiten hasi ginen. Orain 40 bat urte sagardotegietara taberna eta elkarte edo soziedadeetako jendea etortzen zen, sagardoa upeletik probatu eta ondoren nondik erosi erabakitzeke. Hemen tortilla jartzen genien eta eurek haragia edo kaxuelak ekartzen ziztuzten. Emakume gutxi ibiltzen zen garai hartan.

Galdera: Baina itzuli gaitzen atzera. Noiz erabakitzen duzu sagardogile izango zinela?

Joxe: Gure etxea baserria eta sagardotegia zen. Nik ez nituen gustuko baserriko lanak eta orduan osabaren bidez, Donostiako Nafarroa ibilbidean da goen gasolindegian hasi nintzen lanean,

engrasatzaile. Goizeko 9tan sartzen nintzen lanera baina sagardotegiko lanak oso gustuko nituen eta lanera joan aurretik patsa ebaki eta lanak eginak uzten nituen, aitari eskatzen nion eguerdirako tola-rea altxata prest eduki zezala eta tarte horretan ere sagardoa egiten ibiltzen nintzen. Sagardotegian aiona, aita eta hirurok jarduten genuen. Donostiara, aldiz, bizikletaz egiten nituen joan-etorriak. Horrela bizi izan nintzen soldaduskara joan arte.

Galdera: Soldaduskak bueltan sagardotegiko martxan murgildu zinen. Zein aldaketa bizi izan zenituen?

Joxe: Garai hartan asto lana egiten genuen sagardotegian, dena eskuz, bai sagarra deskargatu, bai tolarean jarri, patsa egin.. egun oso bat behar izaten genuen gaur egun 4-5 orduetan egiten den lana amaitzeko.... Eta upelak ere eskuz garbitu behar.

Soziedadeetan saltzen genuen asko, botilak eraman, bodegatan pilatu, hutsak ekarri eta garbitu berriro sagardoaz betetzeko. Ez dauka zerikusirik gaur egungoarekin. Egindakoa baino sagardo gehiago saltzen genuen eta sagardotegia handitzeko beharra ikusi nuen baina dirurik ez....

Orduan kamioia erosi nuen eta sagardotegiko lanetatik gain inguruetakoa enpresentzat egiten nituen lanak. Handik ateratako sosa gorde nituen eta horrekin lortu nuen sagardotegia handitzea... Baimen kontuak ere ez ziren errazak izan.

Poliki-poliki etxera sagardoa dastatzera etortzen zirenek haragia ekartzeari utzi zioten, bertan ere eskaintzen genuelako eta kalkulu oso txarrak egin eta alperrik asko galtzen zelako.

Galdera: Etxean aldaketa horiek be ondo hartu ziren?

Joxe: Ez beti. Gogoratzen dut Hondarribiko jatetxe batek botilak azkarrago betetzeko lau kanillakoa ekarri zuela eta hura aitonaren aurpegia... Hori ez omen zen ona, botilak mantso bete behar omen ziren. A zer erretolika! Baina gaur badakigu ideia guzti horiek okerrak zirela.

Sagardoak bere puntua hartzen zuenean, ezin upelean mantendu... Lau mila litroko upela botilartzeko, goizeko seietan hasi eta eguerdiko ordu batean upel erdia besterik ez genuen egina, eta goizean botilaratutakoa arratsaldean banatu behar.

“Gaur egun ia ez dago sagardo-edalerik”



Galdera: Eta gaur egungo egoera nola ikusten duzu?

Joxe: Gaur ez dago sagardo-edalerik, ez datoz dastatzera. Gainera, sagardoa edozein lekutan dago, soziedadeetan gutxi saltzen da. Gauzak asko aldatu dira, baita lana egiteko moduan ere. Orain dena bottoa sakatuz egiten da, makinek egiten dute lana. Adibide bat, orain 20 tona sagar 5 orduetan upelean daude, lehen 3 tona egiteko 3 egun behar izaten genituen.

Galdera: Eta azkenik, asko aldatu al da, sagardoa bera?

Joxe: Izugarri...Lehen sagardoa azidoagoa, bi-ziagoa eta gogorragoa zen. Ezin zen asko edan eta urte batetik bestera txartu egiten zen. Gaurkoa samurragoa, arinagoa edateko errazagoa da. Urte batetik bestera ere ondo mantentzen da. Gaur egun sagardoak analisi mota ugari pasa behar izaten ditu.

GARBIÑE San Miguel



Urumeako Kronika eta Astigarragako Kronika

Zer da Kronika?

Euskaraz eta debalde argitaratzen den egunkaria. Gainerako prentsa dagoen lekutan hartu daiteke.

Paperean, asteazkenetan: Astigarragako Kronika; larunbatetan: Urumeako Kronika.

Interneten, egunero: www.kronika.net.

Harremanetarako: Kiroldegia, Santio Zeharra 8. 688660714/astigarraga@kronika.net.

Astigarragak ere badu Kronika

Astigarragan, egunkari bat sortu da: Kronika. Martxoarekin batera jarri zen martxan. Euskaraz da, eta debalde. Egunero argitaratzen da interneten, eta asteazkenero eta larunbatero paperean. Kronika Hernanin eta Ereñotzun hasi zen, eta orain Astigarraga, Arano eta Goizueta gehitu zaizkio. Dobera Euskara Elkarteko proiektu honetan, 8 laguneko lantaldea ari da lanean.

- Kaixo Izaskun!
- Aupa Mikel! Zer moduz?
- Hementxe neska, betiko martxan. Aizan, enteratu naun hire semea bizikletan ederki moldatzen dela. Karrera irabazi omen zinan larunbatean Aian.
- Bai, hala duk. Eta nola enteratu haiz ba?
- Astigarragako Kronikan irakurri dinat. Hire koinatua ere azaltzen dun, igandeko kontzertua ikusiz.
- Hori zer duk, egunkariekin banatzen duten suplemento hori, ezta?
- Ez, ez. Ez dun suplementoa, egunkari bat dun. Astigarragako egunkaria, herrikoa. Dohainik dun gainera. Beste egunkariak egoten diren lekuan banatzen dun, baina ez din zerikusirik besteekin. Egia esan, herriko berri izateko egokia dun.
- Hartu egin beharko diat orduan!

Astigarragako berriak, paperean eta interneten

Astigarragako Kronika herri egunkaria, martxoan jarri zen abian. Alde batetik, asteazkenetan argitaratzen da. A3 tamainako bi orri izaten dira eta Astigarragan edo astigartarrei gertatutako albisteak biltzen dira bertan. Edozein motatako albisteak. Bestetik, larunbatetan argitaratzen da. Kasu honetan, Astigarragako Kronika, Urumeako Kronikaren barruan argitaratzen da, hau da, bailarako egunkariaren barruan. 16 orritako egunkaria da eta bertan, 4-6 orri izaten dira Astigarragari buruzkoak. Hernani, Ereñotzu, Arano eta Goizuetako albisteak ere biltzen dira Urumeako Kronikan. Inguruko herrien berri izateko aproposa. Paperezkoaz gain, interneteko bertsioa ere badago, eta hori egunero berritzen da, albisteak sortzen doazen heinean. Astigarragak, bere atal propioa du interneten ere, gainerako herriein batera: www.kronika.net.

Herritarren eskura, debalde

Kronikak zerbitzu bat eskaini nahi die Astigarragako herritar guztiei eta horregatik, denengana iristeko, dohainik banatzen da. Gainerako prentsa banatzen den puntuetan hartu daiteke: okindegietan, liburutegietan, gasolindegian... Okinek ere banatzen dute zenbait etxetara, ogiarekin batera. Eta dendariak, banaketan laguntzeko, gainerako egunkariaren barruan ere banatzen dute, nahiz eta aparteko egunkari bat izan. Kronikaren bidez, herriko talde eta herritarren nondik norakoen berri izan daiteke eta herriaren kohesioan eragitea da bere helburua; gizarte integrazioan. Eta dudarik gabe, astigartar guztiak dute lekua Kronikan. Horretarako, informazioa era objetiboan lantzen da, iritzi guztiak bilduz; eta baita gai guztiak landuz ere: ingurumena, osasuna, kirola, gizartea, politika...

Euskara errazean idatzia

Euskara hutsean da Kronika. Hori horrela, euskaraz irakurtzeko zenbaitek izan ditzakeen zailtasunak kon-

tuan hartzen dira eta euskara erraza erabiltzen da. Komunikatiboa, gertukoa eta atsegina.

Kronika euskara hutsean da, Dobera Euskal Elkartearen proiektua delako. Dobera, irabazi asmorik gabeko elkarte da. 1993an sortu zen eta euskararen normalizazioaren alde egiten du lan. Beraz, Kronikak ere helburu bera du.

Herritarrekin elkarlanean

Esan bezala, Kronikak herrian gertatzen den guztia berri eman nahi du eta horretan funtzio garrantzitsua betetzen dute herriko taldeek eta herritarrek. Sortzen duten informazio hori eskura jarri gabe, ezingo litzateke Kronikarik egin. Horregatik, elkarlan horri eutsi nahi dio Kronikak; eta ahalik eta gehien indartu.

Instituzioen laguntza

Astigarragako Kronika martxan jartzeko nahia aspalditik dator. Doberak, Hernaniko Kronika sortu zuen 2000 urtean eta bertako esperientzian oinarrituta, Astigarragan ere halako egunkari bat sortzea egoki ikusten zuen. Azkenean, aurten izan da posible proiektu berri hau abiatzea. Astigarragako Udalak emandako diru laguntzak zerikusi haundia izan du. Kronikako proiektu osoak (Astigarraga, Urumea eta Hernani), orokorrean, bailarako udaletako, Gipuzkoako Diputazioko eta Eusko Jaurlaritzako diru laguntzak jasotzen ditu. Finantziazioaren zati bat da hori eta gainerakoa, herriko merkatariek eta herritarrek jartzen duten publizitateari eskerrak lortzen du. Baita, borondatez dirua ematen duten bazkide-laguntzaileei esker ere.

Zentzu guztietan, beraz, herritarrek ditu oinarri egunkari honek.

Urumeako Kronika Lantaldea



Kronikako lanaldea:
Karmelo Garmendia, Astigarragako buruzkaria, andiani, Jaxeba Iurrumendi, Enak? Ogiluz, Mikel Romáez de Alda, Esti Zabertio, Añirra Mando, Anna Muelakiz eta Leire Gorri.



Euria ari zuen kanpoan eta jendea zitzu bizian korrika zebilen bakoitza bere aterkiarekin lanera edo etxera bi-dean.

Joseba bere ordenagailuaren aurrean zegoen gauero bezala interneten nabigatzen eta dibertsioagatik gaiztakeria txikiak egiten: kontuak lapurtzen, beste batzuen ordenagailura sartzen... eta berarentzat normalak ziren beste hainbat gauza egiten.

Joseba Estatu Batuetako hackerrik onenetakoa zen, beraz, gauzarik zailenak berarentzat errazak ziren. Nahiz eta asteko ordu gehienak ordenagailu aurrean pasa, dirua ez zitzaion inoiz falta izaten mafientzat programak egiten eta datu sekretuak lapurtzen lan egiten zuelako. Baita beretzat komenigarriak ziren banku transferentzia ilegallak egiten ere.

Bat-batean bere e-mailak zarata bat atera zuen. Zarata hori e-mail bat iritsi zitzaiola adierazten zuen zarata zen. Hori alde batera utzi zuen momentu batez eta lehenik mafientzako programa amaitu eta ordenagailutik CD-ra pasa zuen. Hori amaitu zuenenean e-maila ireki zuen anuntzioren bat edo negozioren bat izango zela pentsatuz, baina begiak zabal-zabalik geratu zitzaizkion igorlearen izena ikusi zuenean.

Igorlearen izena Ekaitz zen eta berarekin egin zuen lan duela urte asko. Bera baino altuagoa eta Euskal Herrian bizi zen mutil bat zen, ez zuten inoiz hitz egin duela urte askotatik eta horregatik harritu zen hainbeste.

Irakurtzen hasi zenean ikusi zuen ez zela beti jasotzen zituen mezu horietako bati buruz ari:

"Lehengoa fisiko batekin topatu nintzen, duela asko nire lagun bat, eta partikula oso arraroa deskubritu zuela erakutsi zidan. Partikula horri buruz hitz egiten aritu ginen eta ondoren bere etxera eraman ninduen hainbesteko interesa nuela ikusirik.

Erakutsi zidan partikula hori oso arraroa zen, sortu baitzuen esperimentu batzuen bidez, eta interesatua nengoenez kopia bat egin zidan ez ze-

HACKERRAK

kielako zertarako balio zuen, eta esan zidan berak ez bazuen deskubritu zertarako balio zuen nik ere ez nuela egingo.

Baina oker zegoen, interneten begiratzen aritu nintzen gau oso bat nituen lan guztiak alde batera utzita, eta ordu askoren ondoren jabetu nintzen mundu paraleloak sortzeko eta mundu ezberdinak lotzeko balio zuela. Horrek ez zidanez ezertarako ere balio kable batzuen bidez ordenagailura konektatu nuen eta nik korrika eta presaka sortu nuen programa batekin eginkizuna aldatu nion eta horri esker ordenagailu batera konektatuz gero mundu birtuala eta erreala konektatzeko ahalmena ematen zidan, hau da, nahi dugun guztia egiteko aukera ematen digu

Oharra: Etorri nire etxera hau irakurtzen duzunean."

Ahoa zabal-zabalik geratu zitzaion erabat harriturik eta momentu batez geldirik geratu zen.


Amaitu bezain laster, tximista bat baino azkarrago maletak egiten hasi zen, eta hegazkinik azkarrenerako txartel bat erosi zuen. Bidaia asko irau zuen, eta horren ondorioz, Ekaitz etxera iritsi zenerako berriz ere gaua iritsi asmo. Konbertsazio askorik eduki gabe, lotara joan ziren hurrengo egunean gauza asko egiteko asmoz.

Gosaldu ondoren Ekaitzek makinak eta programek eduki behar zituzten gauzak erakutsi zizkion Josebari. Ohartu zen akats batzuk zeudela planoetan eta zuzendu zituztenean, biak lanean hasi ziren buru-belarri.

Joseba programak egiten oso ona zenez, berak egin zuen zati hori abiadura bizian, eta bestalde Ekaitz makinak egiten hasi zen, torlojuak lotzen eta soldatzen jo eta ke.

Eguerdia iritsi zen eta biak ia-ia amaitua zuten beraien lana. Partikula urdin hori makinan sartzea bakarrik falta zitzaien.

Egilea:
IÑIGO LIZARRIBAR IMAZ, 14 urte, DBH2.
Koldo Mitxelena IPUIN LEHIAKETAKO 1. SARIA(2014).



Doiketa horiek amaitutzat eman zituztenean, Ekaitzek burua jaitsi, triste aurpegia jarri eta serio-serio:

-Planak alde txar bat du- esan zion munduaren amaierari buruz hitz egiten arituko balitz bezala -Bietako batek mundu birtualaren eta errearen zubia izan beharko du, hau da, bere buruaren zati bat kendu eta egin ditugun makinak eta programak sartu beharko ditu bere buruan.

Josebak ez zion alde txarrik ikusi horri, baina segituan konturatu zen zerbait oker ateraz gero, betiko bi munduen artean geratu beharko zuela makina buruan sartzen zuenak.

Hasiera batean bietako inork ez zuen boluntario izan nahi, baina gero Joseba konturatu zen abantaila handi bat zuela makina hori buruan sartzeak.

Inoren laguntzarik gabe gobernatu ahalko zuen mundua Ekaitzek hitz egin zuen gero, eta isiltasunaren erdian baretzeko gaizto bat egin zuen, eta jarraian:

-Ni izango naiz boluntarioa- esan zuen adore handiz.

Ekaitz Josebaren kaskezurra irekitzen hasi zen etxean zuen material kirurgiko zahar batekin. Hasieran odol asko ateratzen zitzaion baina geroxeago odol jariora urrituz joan zen.

Burezurra mahai batean utzi zuen eta kontu handiz burmuinaren zati bat kendu zion makina sartu ahal izateko.

Makina sartu zionean eta burua josten amaitu zuenean, Joseba arraro sentitzen zen eta ez zuen gorputzaren zati bat nabaritzen, baina denborarekin konpontzen joan ziren makinak zituen akats txikiak.

Probatzen hasi ziren eta Josebak, hackerra zenez, bazekien nola sartu bankuko kontuetan edo beste kontu mota batzuetan; baina orain bankuko kontu birtualak eta e-mail kontuak izan beharrean benetako kontuetan eta pertsonen gorputzen barnean sar zitekeen; beraz, jendea kontrolatzen bankuak lapurtzen eta mundu osoan zehar kaosa zabaltzen hasi ziren.

Joseba munduko jaun eta jabe sentitzen zen.

Joseba kaosa zabaltzen aspertzen hasi zenean, gogoratu zen Ekaitz hil behar zuela bera bakarrik izateko munduko jaun eta jabe, eta hori egiteko modu bakarra bere gorputzean sartzea eta bere buruaz beste egitea zenez, horretan hasi zen.

Bat-batean bere buruan zegoen makinak soinu arraro bat egin zuen, atzera kontaketa hasiko zela abisatzeko bezala.

Josebak ez zekien zer zen zarata hori eta gutxien espero zuenean Ekaitzek zerbait esan zion:

-Ezagutzen zintudanez eta ia seguru nekielako ni hiltzen saiatuko zinela, zu nire gorputzean sartzea zindozenean aktibatuko zen auto suntsipen sistema bat fabrikatu nion makinari. Beraz, orain atzera kontaketa entzungo duzu eta ondoren makina izorratu egingo da baita molekula indargabetu ere, eta horrek zu bi munduen artean gelditzea eragingo du, betiko!- esplikatu zion begirada zorrotz bat mantenduz hitz egiten zuen bitartean.

Joseba zur eta lur geratu zen, ez zekiela zer erantzun ere.

Halako batean, Josebak sekulako garraxia bota zuen:

-Eeez, ez da posible! Uste nuen biotatik azkarrena ni nintzela- adierazi zion suminduta.

-Oraintxe erakutsi dizut hori ez dela horrela eta zure planek ere huts egin dezaketela- erantzun zion oraindik begirada zorrotza mantenduz.

Atzera kontaketa amaitu zenean, buruan sekulako mina sentitzen hasi zen Joseba eta berotasun baten ondoren desagertu egin zen molekula bakarrik utziz lehenago bera zegoen tokian.

Molekula oso beroa zegoen, kea zeriola, eta auto suntsiketaren ondorioz urdin kolore bizia eduki beharrean gris ilun-iluna zuen.

Ordutik aurrera inor ere ez da saiatu berriro egiten Ekaitzek eta Josebak, talde lan akats txiki batengatik izango ez balitz, lortu ez zutena burutzen, eta oraindik ere Josebak bi munduen artean jarraitzen du norbait iritsiko den esperantzarekin, bera bertatik atera ahal izateko. ■



Astigarragako PATCHWORK Taldea

Askotan gertatu izan zait eguneroko gertaera txikietan ustekabe atseginak aurkitzea. Joan den apirilean nire postontziko e-mailak irakurtzen ari nintzela gonbite bat irakurri nuen sei laguneko talde batek Astigarragako Kultur Etxean maiatzaren 8k 11ra antolatzen zuen patchwork erakusketa bisitatzeko. Gaia asko interesatzen zitzaidan eta berehala idatzi nuen gogorarazpen bat agendan.

Arantxa Arzamendi

Patchwork hitza hainbat testuingurutan erabiltzen dugu gaur egun. Jatorriz ingelesetik dator, oihal zati txikiak eta kolore diferentetakoak josteko modu bat da, marrazki edo motiboak osatzeko. Zatiak oso ondo neurtu eta moztu behar dira elkarren artean puzzle antzeko irudi edo eskemak egin ahal izateko. Guzti honetan garrantzi handia dauka oihal zatien koloreak eta tonuak. Patchwork teknika azaltzen duten liburuetan detaile handiarekin aztertzen dira koloreen arteko konbinazioak.

Teknika honekin gehienetan pieza handiak egiten dira: bai ohe gainean jartzeko koltxak eta baita ere sofan egoteko tapaki edo mantak. Objektu txikiagoak ere egin daitezke, adibidez kuxinak, mota guztietako poltsak, ogia-erentzako zorroak, kalera ateratzeko modako poltsak, motxilak, eta beste hainbat gauza. Josteko teknika, berriz, bi eratakoa izan daiteke, eskuz egin edo makinaz josia. Esango nuke gaur egun bietara egiten dela, batzuek nahiago izaten dute eskuz jostea eta beste batzuek berriz makinaz egiten dute.

Adituek diote historian zehar zibilizazio gehienetan aurkitu direla patchwork teknikarekin jositako gauzak: antzinako egiptiarren piramideetan, Txinan duela 5000 urte eta European Erdi Aroan. Gugandik hurbilago dauden garaietako erreferentzia, Ameriketara joaten ziren emigranteena da. XX. mendearen hasierako krisialdien ondorioz jantziak birziklatu beharra izaten zuten eta horretarako arropa zaharrak de-segiten zituzten, oihal zatiak berriro erabili eta jantziak edo tapakiak edo beharrezkoak zituzten gauzak josi ahal izateko.

Gure gizartean oso ohituak gaude patchwork teknikarekin egindako gauzak ikustera, besteak beste, etxeetako dekorazioan, modako osagarrietan edo jantzietan. Helburua aldatu egin daiteke noski, orokorrean ez dira erabilitako oihalak birziklatzen, baina esan daiteke teknika berdinsuarekin lan egiten dela. Hainbat lekutan ikastaroak antolatzen dira patchwork nola egin ikasi eta praktikatzeko, eta kideen artean talde lanerako joera zabaltzen da. Praktika guzti honen inguruan feriak eta azokak antolatzen dira oihal eta materialen salerosketarako eta nola ez erakusketak, elkarren berri izan eta egindako proiektuen zabalkunderako.

Nire aldetik aitortu behar dut azkenaldi honetan patchwork ikasten ari naizela zaletasun handi xamarrekin denbora libredua dudana neurrian, eta ahalegintzen naiz inguruan egiten diren ekimenetara joaten. Kultur Etxean erakusketa bitxi bat aurkitu nuen, motibo askotako koltxa eta manta koloretsuek bigarren solairuko aretoa apaintzen zuten, eta erdiko mahaian berriz, formatu txikiko lanak zeuden, besteak beste, poltsak, zorroak eta nezeserrak. Astigarragako patchwork taldean sei lagun ditugu: Ana Iturregi eta Maite Taberna astigarragarrak, Malen Mintegi Aiatik etortzen da, Gemma donostiarrak da, Rosa García hernaniarra eta Sagra Jauregiberri zizurkildarra.

Taldeak histori luze xamarra du: 1996 inguruan, gaur eguneko taldean dauden lau kidek elkar ezagutuko zuten Donostiako Amara auzoko denda batean hartzen zituzten patchwork klaseetan. Ana Iturregik oso ondo gogoratzen ditu klase haiek. Irakaslea jatorriz paristarra zen, Gotzone Madine, ama donostiarrak zuen eta zenbait urtetan Donostian bizi izan zen. Gotzoneren irakaskuntzak arrasto handia utzi zuen Astigarragako taldean, batetik josteko teknikari dagokiona, pazientziaren beharra gauzak ongi egiteko, gaizki dagoena askatu eta errepikatzea, lana erabat ondo ikusi arte eta bestetik, patchwork lana egitean talde lanaren izpiritua transmititu zien, egindakoa ekipoa konpartitzea eta elkarren arteko laguntzaren beharra. ▶



PATCHWORK:

oihal zati txikiak eta kolore differentetakoak josteko modu bat da, marrazki edo motiboak osatzeko.



Astigarragako PATCHWORK Taldea

Ana Iturregi elkarrizketatzeko aukera izan dugu:

“Gotzone 2000. urtean Parisera bueltatu zenean, umezurtz geratu ginen... Garai hartan patchwork lan hau ez zen ezaguna eta oso zaila zen non ikasi aurkitzea eta irakasle on bat lortzea. Gainera Gotzonek oso oso altu jarri zigun listoia. Baina patchwork egiteko gogo handia genuenez, erabaki genuen irakaslerik gabe bazen ere, jarraitu behar genuela josten. Eta horrela erabaki genuen astero jarraituko ginela elkartzen nire etxean, Astigarragan.”

Patchwork honen harrak harrapatzen duenak edozein zirrikitu baliatuko du zaletasuna praktikan jartzeko. Ahal duen denbora libre gehienetan esku artean dituen lanetan murgilduko da, baina lanean hasi aurretik oihalak erosi beharko ditu, eskemak aukeratzeko ere denbora beharko du, oporretan edo lan bidaietan beste hiri batzuetara joaten bada beti izango du antena bat jarria patchworkaren inguruan zer berri dagoen jakiteko. Guzti honetarako informazio iturri eta komunikatzeko tresna oso lagungarriak sare sozialak dira, besteak beste, web orriak, blogak eta Astigarragako taldearen kasuan Pinteresten jarraitzaile sutsuak direla azaldu didate.

Ana Iturregiren taldearentzat patchwork egitea gozatzeko modu bat da, denbora libre gustura pasa, lasaitasunarekin, eta elkarrekin egoteko aukera, betiere pazientzia handiarekin jostorratza eta hariarekin emandako puntada bakoitzean. Baina fase horretara iritsi aurretik bada formakuntza garai bat, non garrantzi handia izango duen irakasle on baten irakasbideak. Gerora aukera asko daude liburu, aldizkari eta interneteko webguneetan baina hasierako formakuntza baldintza saihestezina izan da Astigarragako taldearen iritzi.

Bi urtean behin, taldeak erakusketa bat antolatzen du Astigarragako Kultur Etxean. 1999an hasi ziren jardura hau antolatzen, esperientzia ona izen zen eta 2002an bigarren erakusketa egin zuten. Erakusketetan aurkezten dituzten proiektuek lan ordu asko eskatzen dituzte eta bi urteko epea beharrezkoa zaie taxuzko lanak burutu ahal izateko. Aurtengoa, beraz, zazpigarren erakusketa izan da. Taldekideek lanean jarraitzeko asmoa dute, oso emakume biziak dira eta ezusteko opari bat baino gehiago izango dugu.

Erakusketa antolatzeko baliabideen zati bat Udalaren Kultura Sailetik jasotzen dute, erraztasun handiak ematen dizkie, eta bestalde, autofinantziazio maila bat ere lortzen dute bisitarien artean zozketatzen duten koltxarekin. Ana Iturregik aitortu digu oso pozik daudela jendearen erantzunarekin: “egia esan, asko disfrutatzen dugu erakusketaren egun horietan, jendeari gure lanak aurkezten, behar duenari azalpenak ematen.”

Zer gehiago eskatu diezaiokegu zaletasun bati? Munduko edozein txokotan aurkituko ditugu patchworkgileen azoka, erakusketa eta jaialdiak. Gure inguruan Gipuzkoan bertan Zizurkilen egiten dena aipatuko nuke eta 20 kilometrora, Donibane Lohitzunen, Quilt en Sud izeneko patchwork zaleen jaialdia egiten da bi urtero. Hurrengoa, 2015eko ekainaren 3tik 6ra Miarritzen iragarri dute. Antolaketa erraldoi honetan 200 boluntariok baino gehiagok parte hartuko omen du. Ziur nago Astigarragako taldekideentzat aukera ona izango dela.

FIESTAS POPULARES EN ARROBITXULO

Arrobitxulo es el barrio que hace de unión entre el centro de Astigarraga y el núcleo de Ergobia. Es una zona que ha crecido mucho y en la que al parecer ha surgido un espacio nuevo, con su propia vida y con la consecuencia de tener sus propias fiestas los últimos años. Nos hemos puesto en contacto con Begoña García, una de las primeras organizadoras.

¿Desde cuándo se celebran estas fiestas?

Las fiestas de Arrobitxulo se empezaron a celebrar en 2011 y fue porque nos apetecía hacer una comida popular en el barrio, ya que hay mucha gente que se conoce de toda la vida y hay muy buen ambiente.

¿Por qué surge la idea y quiénes son los que se animaron a organizarlas?

De una cosa fue surgiendo otra y entre unos cuantos (Joxemi, Raul, Iñigo Betelu, Alfredo... y yo misma) nos liamos la manta a la cabeza. Con la colaboración de bares, restaurantes, sidrerías y vendiendo unos bonos en la tienda sacamos algo de dinero para costear los gastos.

¿Os ha resultado difícil buscar la fecha idónea para que resulten participativas?

Buscar la fecha si ha sido un poco complicado porque en Julio son las fiestas del pueblo, Agosto mucha gente de vacaciones, septiembre regatas...

¿Cómo responde el barrio? ¿Se puede decir que hay vida y ganas de hacer cosas?

Este último año Raul y yo prácticamente no hemos estado en la preparación, pero hay muchas personas ilusionadas con que las fiestas continúen ya que hay muchos niñ@s.

¿Se ve que están asentadas y tienen futuro? ¿Hay relevo para organizarlas?

Decir que el primer y segundo año el restaurante Txingurri ha puesto la comida gratis y el tercero cobró un precio simbólico. También hicimos lotería para navidad y tener un poco de fondo. Hay mucha gente que no puede participar en las reuniones pero sin embargo está muy dispuesta a trabajar duro ese día ¡para que todo salga bien! También los txistularis, Xagu xar y gente anónima dispuesta cada uno a hacer lo que mejor sabe. El caserío Lizardi colabora desde el principio regalando unos ramitos de flores para los que viven en las viviendas tuteladas y a cambio nos deja unos ramos para venderlos baratos, también el primer año hubo una gran exposición de verdura que nos regalaron los de Lizardi (Jabi) para que regaláramos.

Unas fiestas siempre son un buen punto de encuentro para los vecinos. ¡A disfrutar un año más!

ROXA ZABALEGI



URTEKO HERRI BIZITZAZ


UDAL EKIPAMENDUAK

Udalak herriko azpiegitura eta zerbitzuen inguruko gogoeta egiteko prozesu parte hartzailea jarri du martxan, herriko hainbat azpiegitura eta zerbitzuren inguruko beharrak jasoz. Herritarrekin landuz proposamen horiek lehentasunaren arabera sailkatu dira eta zerbitzuen erabiltzaileen iritzia jaso da galdetegi baten bitartez. 513 herritarrek hartu dute parte aurrekontuetarako gordetako 100.000 euroetako partida nora bideratu aukeratzeko bozketan. Alegia, bozka zezaketen herritarren %11,53k. Ikastolako jolastokiaren zati bat estaltzearen aukera izan da bozkatuena, 177 bozkarekin (%28,73). Lanak udaran egingo dira. Beraz, ikasturte hasierarako Ikastolak aterpe berria izango du. Anuskako urbanizazioak eta kiroldegiak ere izango dute euren lekutxoak 2014ko aurrekontuetan, 2. eta 3. aukera bozkatuenak izan baitira.



ILARRAREN ASTEA

Aurten ere, Astigarraga, hirugarren urtez, ilarrez loretu da Txotx bolada amaitu denean. Badira oraindik, nahiz eta ez eman, baserriar ugari gure "baratz-bitxi berdea" ederki zaintzen dutenak, hortik datorkigu gure Amalurrak ematen dituen dohaiak Astigarragan bere gune kuttuna aurkitzea. "Astisagarra", "Astilarra"... Astigarraga fuitu ederrak eta ugari, (eta oraindik ikusi beharrekoak!) Kaletik, jada...haurrek galdetzen didate "noiz izango dira ilar-gazteen garai berriak?", jarrai dezagun honako festak eta jaialdiak sustatzen, auskalo, hiltzen garenean gure ondorengoek galdetuko ote duten... "zeintzuk ziren sagarrak eta ilarak ospatzen zuten ero horiek?"
URKIRI Salaberria



ANIZTASUN ASTEA



Aniztasun astean hainbat herrialde-tako musika kontzertuak izan dira entzungai. Horrekin batera Sahara, Peru, Bulgaria, Honduras, Nikaragua, Argentina, Mexiko, Kolonbia, Ekuador, Maroko eta Errumaniako janaria dastatzeko aukera ere izan da, gaiari buruzko proiektzioak ikusi, hitzaldiak entzun eta herriko tabernetan argazkiak ikusteko aukeraz gain. Udalak hiru proiektu laguntzen ditu diruz, eta horiek ikusgai jarri ziren plazan: "Honek" Nikaraguan, "Fisc" Bolibian eta "Teresa Dupoy" Tailandian.

IKURRINAREN ALDEKO EKIMENAK



Ikurrinaren aldeko ekimenak antolatu dira Astigarragan ere, bandera espainolaren epaia dela eta. Omenaldi gisako ekitaldi batean herriko talde gehienek sinatutako "Ikurrinaren aldeko manifestua" izeneko agiria irakurri zen Foru Plazan, ikurrina dantza dantzatu ondoren. Geurea ikurrina!



ASTIGARRAGATAR TXINRRINDULARIAK

Astigarragako txirrindulariak. Gorka Urkiola eta Urko Semperena Donosti Berri taldeko gazteak, denboraldi bikaina burutu ondoren, bigarren eta hirugarren sailkatu dira Gipuzkoako pista txapelketan. Bi txirrindulari hauek Gipuzkoako selekzioarekin Portugalgo kopan hartu dute parte, maila handia erakutsiz. Argazkian Gorka, Urko eta beraiekin joan zen beste kadetea, Imanol Isasa.



GURE ESKU DAGO

Gure Esku Dago taldea sortu da Astigarragan. Erabakitze eskubidea demokratikoa eta unibertsala denez, eskubide horren alde lan egiteko herri dinamika da. Ezberdintasun politiko eta sozialak gaituz, herriko talde eta eragile desberdinen arteko elkarlana bilatu nahi du, erabakitze eskubidearen aldeko gogo-kidetasuna eta ekintza bateratua helburu izanik.

LOIOLAKO ERRIBERA

TXOMIN ENEA

MARTUTENE

SAGARDOAREN
IBAIA GUNEA

ASTIGARRAGA

ZIKLOBIA

7 KM
10:00-18:00



EKAINA
JUNIO
01



HERNANI

MARTINDEGI

Donostia eta Hernani lotzen dituen zazpi kilometroko bidean hainbat jarduera osagarri izan dira, ibilbidean zehar: dantza, musika, azokak, kirola ...



Tximela^{SA}



www.tximela.com



Astigarragako Udala



IKURRINAREN

ALDEKO HERRI EKIMENA

Astigarra, 2014ko apirilaren 12an